

ARCO

UMEZAINZAKO 25. URTEURRENEKO EKINTZEN BERRI

Arrasate

P R E S S

1995eko
Abenduak 1
299. zenb.

KULTURA

III. Naziorteko
akordeoi
lehiaketa

KIROLAK

Gaizka
Aranegi


Deba

Bailaran
Hiesaren
kontrako
borroka

Hies
Ekimena

taldearen
erronka





Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk.....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAJARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk.....	☎77 06 22
---	-----------

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
--	-----------

Sinesgabezia

Aizu, Jose Mari, nik ez dut Jainkoaren- gan sinesten”.

- Beno, ez didazu horrekin askorik esaten. Jakin nahi nuke zer ulertzen edo esan nahi duzun Jainko hitzarekin. Beharbada, neronek ere uko egingo nioke zuk ukatzen duzun Jainkoari. Izan ere Jainko hitza, hitza besterik ez da; hitzaren edukia da garrantzizkoa, ez izena.

Erljio gauzetan, futbolean eta sendakuntzan bezala, “entendidu” asko dago, eskolatuak nahiz ez eskolatuak, ahozabalka eta “pontifikatuz” mintzatzen direnak ezer gutxi jakin arren gaiari buruz.

Gauza zientifikobaten interesa edo jakin nahia dudanean, gaiean jakitun direnengana jotzen dut. Sinismen gauzetan berriz, serio aztertzen eta ikasten saiatzen

naiz, eta esperientzia sakon eta zabala bizi izan zuen gizon jakitun batengana jotzen dut: Nazareteko Jesus. Ez ditu teoria hutsak eta ideologiak erakusten, bere bizikizunak eta bere barne-ezaguerak baizik.

Zientzi biblikoen laguntzarekin, Ebanjelioetan aurkitu dudana Jainkoak

gero eta konbentzitu eta maitemintzen nau; ez da Itun Zaharreko Jainko zigorlarria, gizakia menderatzen duena, zorion debekatzaila, ez; ez eta niri, txikitan, eliz-gizonak barne, irakatsi zidatena ere.


Jesusen Jainkoa askatzailea da, “txikien eta baztertuen” defendatzailea, gizakia eta mundua -ni barne- maita duena, naizen bezala onartu eta duintasunez eta nortasunez janzten nauena. Jainko horren baitan, aske, kritiko, ekintzaile, manipulagaitza, itxaropentsu, gustora eta beteta sentitzen naiz.

Batikano II Kontziliotik hona, asko aldatu dira gauzak sinismenduen eta eliz-elkarteen baitan, nahiz oraindik historiaren pisua eta okerdura Elizan, maila handi batean, gainditzeke egon. Garbi ikusten dut muskil berriari ari zaizkiola ernetzen - Arrasaten ere-

Elizaren enbor zaharrari.

Berziklatu beharrean aurkitzen garela guztion, sinestedun eta sinisgabeak iraganean tratatuta eta antzu geldi ez gaitzen, garbi ikusten dut.

**JOSE MARI ASTIGARRAGA,
SAGARRAGA**



**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioak:** Ikernie Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioak:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © **ARRASATE PRESS.** Tirada: 6.200. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Coop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azala: Goio Arana

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

•••••
Ospitaleko hotza

Lehenengo azaroaren 17ko aldizkarian bazen idatzi bat neuk zuzentzen dudan Deba Garaiko Ospitalari buruz. Haren egileak, J.M.A.k ez omen zekien hotzari aurre egiteko zer irizpide erabiltzen ditugun: hotzaldiaren iraupena kalkulatzeko, berogailua erabiltzeko, estimaziotan asmatu ote dugun jakiteko...

Lehenengo eta behin, argi utzi beharra dut Ospitaleko mantenimendu zerbitzuak ez duela erabiltzen, J.M.A.k uste ez bezala, horren ugutiko irizpiderik kalefazioa jeisteko orduan. Aitzitik, honelaxe jokatzeko dugu guk: Autz-Baltzen hartzen dugu tenperatura, hemen bertan beraz, eta urte sasoiaren hasiera-bukaretan jarraipen estua egiten dugu, alegia, tenperatura kolpetik aldatzen den garaian.

Bestalde, artikuluan esandakoak pentsarazten dit azaroaren 4an sortutako arazo bati buruz ari dela.

Izan ere, egun hartan berogailu-sareko inpulsiobonba hondatu egin zen, bertako pazienteen kaletan. Nola nahi ere, azaroaren 6ko arratsalderako konponduta zegoen.

Ez dago, beraz, planifikazio faltarik. Kontua da ezin ditugula, ustegabeakoak aurrikusi eta planifikatu, sentitzen dugu, hala ere, horrelakoek sortzen duten kaltea, nahiz eta mantenimendu zerbitzuaren lan onari eskerrak gutxitan gertatzen diren.

ZUZENDARI GERENTEA

•••••
UNEDeko EKD kendu behar dela? Zergatik?

Hau da oraindik erantzunik gabeko galdera. Orain arte entzundako eta irakurritako guztiak ez dio honi erantzuten. Sasi-argudioz josita dauden adierazpen horiek ez ditugula onartzen argi utzi nahi dugu.

Sasi-argudio horien artean, asko aipatu da bai AEK bai beste erakunde batzuen eskaintzek betetzen dutela EKDK orain arte jorratutako lana. Azaldu nahi dugu zergatik ez den egia.

Hasteko, helduen irakaskuntzan aritzen garenok prestakuntza berezi bat behar dugu. Bi arlo nagusietan, alde batetik glotodidaktika (hizkuntza ikasi eta irakasteaz arduratzen dena) eta beste aldetik hizkuntzalaritza (hizkuntza landu eta eguneratze-ko beharrezkoa dena).

Glotodidaktikari dagokionez AEKK antolatuta ditu bide ezberdin batzuk. Hala nola, glotodidaktika ikastaroak, urteroko didaktika tailerrak, UEUko glotodidaktika saila eta "Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diploma" EHUn.

Bigarren atala, berriz, hizkuntzalaritzari dagokionez, betidanik baliatu gara EKDK. EGA ondoren ez baitago beste biderik hizkuntza maila hobetzeko eta lantzeko.

Azpimarratu nahi dugu, irakasle gehienok (ez euskara irakasten dutenek soilik,

euskaraz irakasten dutenek ere bai) eta euskal filologo askok zerbitzu hau erabili izan dugula eta aurrerantzean berdin jarraitzeko nahia eta beharra dugula. Deba Garaiko AEKko irakasle gehienok EKDKo ikastaro ezberdinak egin ditugu.

Kontziente gara euskararen etorkizuna neurri handi batean irakasleon esku dagoela, eta hori bermatzeari lehentasuna eman behar zaio.

Bada garaia EKD kentzeko erabaki hau hartu dutenei gogoratzeko hizkuntz-politika baten lehentasunak zeintzuk diren.

Aurreko zapatuan Bergarako kaleetan argi geldituzen gaia berraztertu behar dela eta hausnarketa serio bat eskatu nahi diogu Patronatoari (Foru Aldundia, Kutxa, Euskadiko Lankide Aurrezkia eta Bergarako Udalarari).

Azterketa serio batek erabaki hori atzera botako duela argi dago.

**AKULU AEK EUSKALTEGIA
ERDU AEK EUSKALTEGIA**

Zuzenketa

Joan den asteko gutunen sailean agertzen zen "Lehen aldiz euskaraz sinatutako alokairu kontratua" izenburuko gutu na AEDri zuzenduta zegoen.

Oharra

Datorren astean, zubia medio, ez duzue ARRASATE PRESSIK jasoko. Abenduaren 15ean kaleratuko dugu hurrengo, gure 300.ena.

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

UGARTE
Industri
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

Badakizu nola prebenitu Hiesa?



Jesus Ostolaza
Langile Autonomoa
(30 urte)

Bai. Kondoiekin. Nik ez daukat harreman sexualik etxetik kanpo.



Amaia Larrañaga
Irakaslea
(38 urte)

Gutxi gorabehera bai. Preserbatiboak erabiltzen batez ere. Nik prebenitzen dut, guztiz gainera.




Amaia Leturiaga
Langabetua
(27 urte)

Hiesa prebenitzeko modurik onena kondoiarekin da. Nik prebenitzen dut.



Alex Zubia
Irakaslea
(34 urte)

Harreman sexualak baldin badauzkazu, neurriak hartuz eta xiringak ez konpartituz. Nik prebenitzen dut.



Jesus Diez
Eraikuntza langilea
(24 urte)

Bai badakit. Kondoiak eta horrelakoak erabiltzen. Orain arte prebenitu izan dut.



Miren Lorea Lana
Langilea
(30 urte)

Bai. Kondoiekin, xiringak ez konpartituz, odolarekin kontakturik ez izanez... Nik bai, prebenitzen dut.



Josune Txintxurreta
Etxekoandrea
(62 urte)

Bai, asko entzun dut horren inguruan. Preserbatiboak erabiliz. Nik dagoeneko ez daukat ardurarik.



Arantxa Urrutia
Etxeko Lanak
(60 urte)

Bai. Preserbatiboak eta horrelako gauzak erabiltzen. Nik ez dut prebenitzen.

ONGI ETORRI,
korpainia onean
egoteak badu
abantailik.


SEGUROS
BILBAO

☛ Bizitza
☛ Etxebizitza
☛ Autoa
☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola78 71 57

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udalzaingoak
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 72 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1

Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Larunbata 2

Egunez eta gauez: Mozas. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz.

Igandea 3

Egunez eta gauez: Mozas. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

Astelehena 4

Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
 10ak arte: Irizar. Erguin.

Asteartea 5

Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 10ak arte: Amezua. Santamain.

Asteazkena 6

Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Ruiz. Maala.

Osteguna 7

Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Morales. San Andres.

1 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Boca a boca" 7etan eta 10etan.

• **HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

Arratsaldeko 6.30etan "Tunantes del Norte" taldearekin kalejira. Ondoren, antzerkia Seberon, Arbolapetan eta Herriko plazan. 7etan Kalejira dultzaineroekin. 8etan Giza-katea. Jon Salaberriren omenez Aurrekua eta oroigarria (egun osoan egingo dira Jon Salaberri eta hil diren beste lagunen omenezko ekitaldiak). HIES ekimenak antolatuta.

• **DAVID THOMAS & THE 2 PALE BOYS**

Kontzertua Amaia hallean gaueko 10.30etan. Sarrera 300 pta. Taberna zerbitzua izango da. Udalak antolatuta.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

"Portobello Bones" taldearen kontzertua Gaztetxean gaueko 9etatik aurrera.

• **MODA DESFILEA GOLDEN DISKOTEKAN**

Moda desfilea Golden diskotekan ETEOko ikasleek antolatuta gaueko 11etan. Arrasateko autobusak gaueko 9.30etan eta itzultzeko 4etan. Sarrera eta autobusa 700 pta. Sarrera aurrez erosita 350 pta. eta takilan 400 pta.

• **INSUMISOEI BURUZKO HITZALDIA ARETXABALETAN**

Gaia: "Kode penal berria". Hizlariak: Alvaro Marcet (Kakitzat Koordinakunde Antimilitaristako abokatua) eta Ramon (Kakitzateko intsumisoi). Arratsaldeko 7etan Udaletxeko ganbaran. Aretxabaletako talde antimilitaristak antolatuta.

2 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Brave heart" 5etan, 7etan eta 10.15etan.

• **AKORDEOI LEHIAKETAK ARRASATEN**

Gipuzkoako lehiaketako lehen fasea goizeko 9.30etatik 1.30ak arte eta arratsaldeko 3.30etatik 8etara SFX ikastolan. Gipuzkoako akordeoi konfederakuntzak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.

• **BIOLONTXELO EMANALDIA**
 Arrasate Musikaleko Aretu nagusian eguerdiko 12.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

• **GAZTAINERRE JANA**
 AEDko Ordago taldeak Gaztain erre jana antolatu du. Herriko plazan izango da arratsaldeko 5etan.

• **RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA**

Ruper Ordorika eta Jabier Alvarez abeslarien kontzertua Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Batzen plataformak antolatuta.

• **INTSUMISO EGUNA ARETXABALETAN**

12etan bizikleta martxa Aretxabaletako auzoetan. Ordu batean sagardo eta gazta dastaketa. 5etan bolo txapelketa. 6etan trikitalariekin txikiteoa. 7etan kotxinoaren enterraxoa kalejira eta gaueko 11etan kontzertu sorpresa Ezkutun. Aretxabaletako talde antimilitaristak antolatuta.

3 IGANDEA


• **ZINEA**
 "Brave heart" 5etan, 7etan eta 10.15etan.

• **AKORDEOI LEHIAKETAK ARRASATEN**

Gipuzkoako lehiaketako lehen fasea goizeko 9.30etatik 1.30ak arte Ikastolan.

• **SAN FRANTZISKO XABIER NAFARREN EGUNA**

12etan "Aires Navarros" talde joteroari ongietorria. 12.30etan Meza parrokian. 1.15etan jota emanaldia plazan eta atsedenean ardoen dastaketa. 2.30etan Aretxabaletako Taberna berri jabetxean bazkaria.



HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ruper Ordorika eta Jabier Alvarezek kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Ekintza hori Hiesaren Nazioarteko egunaren barruan kokatzen da.

4 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Brave Heart" 7etan eta 9.30etan
- **NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA**
Nazioarteko akordeoi lehiaketa-ko lehen fasea arratsaldeko 3.30etatik 8.30etara Amaia antzokian.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria askatu lemapean arratsaldeko 8etan kontzentrazioa Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

5 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Brave heart" 7etan eta 9.30etan.
- **NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA**
Goizeko 9.30etatik 1.30etara eta arratsaldeko 3.30etatik 8.30etara Amaia Antzokian.
- **UMEZAINZAKO 25. URTEURRENA**
Umezaintzako ateak zabalik izango dira goizeko 10etatik 5ak arte. Arratsaldeko 5etan Bolo-Boloa 6 urtera arteko ume gutzietan zuzenduta.
- **ENKARTELADA**
Arratsaldeko 7etan Seberon. Senideak elkarteak antolatuta.

6 ASTEAZKENA

- **SAN NIKOLAS EGUNA**
Bolo-boloa Herriko plazan eguerdiko 12etan eta 12.30etan.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
"Etsaiak", "Su ta Gar" eta "Chusma" taldeen kontzertua gaueko 10.30etan gaztetzearan. Sarrera: 800 pta.

7 OSTEGUNA

- **AKORDEOI LEHIAKETAK**
Nazioarteko eta Gipuzkoako lehiaketen bigarren fasea eta Gipuzkoako akordeoi jaialdia goizean eta arratsaldean Amaia antzokian eta Ikastolan.

PINTURA ERAKUSKETA

Gurutze Mujikaren pintura erakusketa Aretxabaleko Areantza auzoko Mitarte Garai jatetzearan abenduaren 5etik urtarrilaren 7a arte.

HERRIEN ARTEKO I. OLINPIADA

Abenduaren 26tik 29ra. Deba Garaian bizi eta 16 urtetik gora duten neskamutientzat. Taldeak gutxienez 8 lagunekoak eta gehienez 12koak. Kirol guztiak egiteko aukera izango dute. Izenematea abenduaren 5a baino lehen Musakolako kiroldegian. Prezioa 3.000 pta. Deba garaiko kirol zerbitzuak antolatuta.



UMEZAINZAKO 25. URTEURRENA

Abenduaren 12an hitzaldia haurra eta kontsumoa izenburupean arratsaldeko 6.30etan Monterronen. 14an beste hitzaldi bat haurra, telebista eta ohiko harremana gaiaren inguruan arratsaldeko 6.30etan Monterronen. Abenduaren 16an larunbata, eguerdiko 12etatik 2etara umeentzat jaialdia Iturripeko frontoian. 2etan bazkaria. Abenduaren 18tik 24ra Monterronen erakusketa. Gaia: Umezaintzaren historia eta eboluzio argazkietan. Orduak egunero arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan goizeko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

ESKAPARATE LEHIAKETA

Lehiaketa 1995eko abenduaren 13a baino lehen Udaletxeko kultura departamenduan izena ematen duten denda gutzietan ahal izango dute parte. Erakusketa abenduaren 15etik 22ra izango da, eskaparatearen muntaia lehenengo egunerako egin beharko da. Kontuan izango diren ezaugarriak: irudimena, orijinaltasuna, mezu publizitarioaren baliogarritasuna eta Santamas eta Gabon giroarekin duen zerikusia. Eskaparateetan bertako produktuak azaldu beharko dira. Sariak: lehenak plaka eta 30.000 pta., bigarrenak 25.000 pta. eta hirugarrenak 20.000 pta. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta komunikabideen bidez jakinaraziko da. Sari bana-keta abenduaren 22an eguerdiko 12etan egingo da.

SAN VIATOR KOOPERATIBAREN BILTZARRA

Abenduaren 14an ohiko eta aparteko biltzarra. Lehen deialdia arratsaldeko 6.15etan bigarrena 6.30etan. Arrasateko Pasealekua 10. zenbakian duen lokalean.

AKORDEOI LEHIAKETEN AGURRA

Abenduaren 8an ostirala, akordeoi lehiaketen amaiera ekitaldia eta sari banaketa Amaia antzokian.

“Saioarekin modu entretenigarri edo behintzat modu biziago batean euskararen berri eman nahi genuke. Euskara beti izan da nire hizkuntza, baina programa hasi denetik konturatu naiz euskararen inguruan zenbait informazio dagoen. Euskaraz bizi gara, baina gauza asko ez dakizkigu euskarari buruz.

(...) Kontuan dugu euskaldunok albiste batzuk erraza- go jasoko ditugula eta albiste bere beharbada erdaldungo- ak urrunagotik ikusten du. Euskara ikasteko metodo berria sortu izana, euskaldunentzat neurri batean soberan dagoen albistea da; aldiz, erdaldunentzat interesgarriagoak dira horrelako albistek”.

Aintzane Gardoki, 1995eko azaroak 26.

ARGIA

“Zuzendaria Europak emandako saria jasotzen ETBn azaltzen den bitartean, berak zuzentzen duen Eskolako ikasle batzuek hartutako neurriekin ados ez daudela azaltzen dute. Ikasle hauen ustez, gaur egun urtero atera behar ziren eta ateratzen diren ikasle kopuru- ren artean desoreka handia dago, eta lan merkatua suspen- ditu edo gainditzeko termometroa litzateke”.

Azaroak 24.

egin


“Nik 2.000 ikasleren artean baten bat minduta egon daitekeela ulertzen dute, eta argi daukadana Franco hil zenetik herri honetan adostasunik ez dagoela da. Beraz, normala iruditzen zait iritzi kontrajarriak egotea, baina honek ez du giro txarrik sortzen Eskolan”.

Ignacio Lakunza, azaroak 24.

egin

Zergatik “piztu” duzue alarma?

Euskal Herriko 45.000 familia pobrezia gorrian bizi dira, 250.000 lagun langabezian daude, gazteriaren %90ak ez du lanik eta Europa- ko langabezi tasa handiena Euskadin dago. Deba Garaian ere azken urteotan ekonomia- ren egoerak txarrera egin du. 82an 7.268 lanpostu finko zeu- den bailaran, eta orain 3.866 besterik ez. Kopuru horretan ez dira kooperatibetako datuak sar- tzen, baina badakigu koopera- tibetan ere lehen lanpostu gehia- go zeudena.



Jon Alustiza
LABeko kidea

Datu guzti horiek kontuan izanik alarma piztu dugu, jendeak egoeraren berri izan behar duela uste dugu eta. Ikusten denez egoera larria da, eta irtenbide moduan neurri batzuk hartzea pro- posatzen dugu. Lana eta ondasunak banatzea eta ordu extrak ez sartzea eskatu dugu besteak beste.

Gizarteak langabetuak baztertzeko dituen zaila da langabetua izatea. Ondorioz, eskusio soziala deitzen dugu- na sortzen da. Langabetuek irtenbide gutxi dute eta asko ego- era horretaz aprobetxatzen dira. Horrela, lanean gero eta bal- dintza txarragoak ematen dira. Giro horretan ETT edo aldi bate- rako lan kontratuak egiten dituzten enpresak eratu dira. Enpre- sa horiek langileen trafikatzailerak hutsak dira; langileari gutxi ordain- tzen diote eta langileen kontura etekinak ateratzen dituzte. Hori dela eta, kanpainaren barruan enpresa horien aurkako ekintzak egin ditugu



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Elena

Bizkaia, Etorbidea, 1 etxebaia - ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Aldi baterako kontratuen aurka

Aldi baterako lan kontratuak egiten dituzten enpresen jarrera salatzeke, LAB sindikatuak protesta ekintza burutu zuen ostegunean.

Arratsaldeko lehen orduetan auto karabana ibili zen inguruko herrietan. Ondoren, Arrasateko Laborman eta Lanbila bulegoetara joan, eta bi bulegoetako kristalak aldi baterako lan kontratuen aurkako pintadekin bete zituzten. Sindikatukoek adierazi zuten, aldi baterako lan kontratuak egiten dituzten enpresek irabaziak izaten dituzte eta hori ezin da onartu.

Manifestazioa eta kontzentrazioa

Sevilla II eta Salto del Negro espetxeetan gose greban dauden preso politikoei elkartzuna adierazteko, joan den domekan kontzentrazioa eta manifestaldia burutu ziren herrian. Ertzantzaren arabera 150 lagun izan ziren manifestaldian, eta antolatzaileen berbetan

400. Aurrekoetan manifestariak protesta egitera Batzokira eta Elkartetxera joan izan direnez, Ertzantza bertara hurbildu zen, baina oraingoan manifestariak ez ziren leku horietara joan. Manifestazioa istilu barik bukatu zen.



Emakumeen presentzia elkarteetan

Joan den astebukaeran herriko hamalau elkarteko partaideak batu ziren, emakumeek elkarteetan zein presentzia duten aztertzeke. Ostiral arratsaldean elkarte bakoitzean zenbat emakume diren bazkide, eta erabaki organuetan emakumeak zein partaidetza duen azaldu zen. Larunbatean, berriz, emakumearen partaidetza bultzatzeko zer egin daitekeen eztabaidatu zuten.

Antolatzaileen esanetan topaketak aberatsak izan dira, eta aurrez zituzten susmoak bete egin dira, hainbat elkarteetan emakumearen presentzia txikia da eta.

Santa Zezilia kontzertua

Astean Santa Zezilia eguna izan zela eta, zapa-tuan kontzertua eskaini zuen Arrasate Musikaleko ganbara orkestrak. Jende ugari hurbildu zen kontzertua entzutera eta San Juan

parrokia bete egin zen. Egun horretan Juanito Arzamendik 69 urte bete zituen, erramu bat oparitu zioten eta zorion kanta bat eskaini.

Ama eta anaia erasotu

Igande gauean D.C.M. arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak anaia eta ama erasotu ondoren. Gualdean etxera joan eta 28 urteko gazteak dirua eskatu zien amari eta anaiari baina dirurik eman ez zielako, lehenengo ama eta gero anaia jipoiu zituen. Atxilotua astelehenean Bergarako epaitegira eraman zuten deklaratzera, eta epailearen aginduz Martutenen sartu dute.

Gaztea atxilotu

Asteartean Ertzantzak I.B.C arrasatearra atxilotu zuen, Zaldispeko Asmobi enpresan ustez lapurtzen aurkitu zutelako. Kargu barik asteazkenean aske utzi zuten.

HILDAKOAK

- Eugenio Diaz Martinez. Aza-roaren 21ean. 70 urte.

KANPAZAR FUAT

AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

- 1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
- 1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
- 1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
- 2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
- 1.9 D (65 cv, 155 Km/h)


ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66



BRAVA

- 1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
- 1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
- 1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
- 1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98



* Goizane Larrañaga

Emakumearen presentzia Arrasateko elkarteetan

Kultura, Gazteria eta Emakume Sailak antolatuta, azaroaren 24 eta 25ean burutu zen "Emakumea Elkarteetan" izenburuko topaketa. Topaketa hau Arrasateko kultur elkarte guztiei zabaldu zitzaion eta bertan 14 elkarte hartu zuten parte.

Kontuan izanik Arrasateko herrian 45 elkarte kultural inguru daudela, positibotzat eman dugu partaidetza. Esan beharra dago, partaidetza nahiko heterogenoa izan zela; 8 elkarte kultural bildu ditugu, 3 emakume elkarte, 2 gazte elkarte eta giza mugimenduko elkarte bat. Horretaz gain ezin ahaztu genezake topaketa honetara hurbildu diren emakumeak gizonezkoak hirukoiztu dituztela.

Topaketa honek, guk geneuzkan susmo batzuk egiaztatzeke aukera eman digu. Batetik, emakumearen presentzia Arrasateko Elkarteetan oso txikia dela, eta bestetik, emakumeek elkarte barruan ez dituztela erantzukizuneko karguak betetzen.

Honen zergatiak gizartearen bertan bilatu beharko genituzke. Betidanik emakumea

.....

“Beraz, ez da kasualitatea elkarte barruan, emakumeoi gehiago kostatzea ardurak gureganatzea”

arlotan pribatua murgiltzeko irakatsia izan da. Gizona berriz, etxetik kanpoko arlotan. Beraz, ez da kasualitatea elkarte barruan, emakumeoi gehiago kostatzea ardurak gureganatzea. Hain zuzen, elkarteak gizartearen erreflejoa dira eta bertan dagoen paper banaketa, elkarteetan isladatzen da.

Emakumeak elkarteetan bere lekua izan dezan egiten ari den borroka horretan, bai elkarteek eta bai instituzio desberdinek paper garrantzitsu bat jokatu behar dute. Topaketa hau erreflexio gisa izan arren, lehen pausu bat besterik ez da izan, eta aurrerantzean jarraipen bat izatea eskatzen du.

* EMAKUME SAILEKO
TEKNIKARIA

USTEAK USTE

NI ERE ERREALAZ!

Iriarteri Errealeko entrenatzaile gisa esan eta egin beharrekoak bukatu zaizkio. Akaso horrenbeste diru mugitzen duen futbola izeneko kirol horretan mane-jatzeko apalegia ote zengure beasaindarra? eta horrela bada, zer?. Entrenatzaile ona izateko, Toshack, Clemente edo Cruyff bezalako harroputza izan behar ote da? badirudi baietz. Umiltasun eta apaltasunean lana egiten duenak ez du balio. Ez dut sinesten eta ez dut sinestu nahi Errealean gertatzen ari den gainbehera Iriarteren erantzunkizuna dela bakarrik.

Talde baten buru izatea garrantzitsua dela argi dago, egunerok lanean fin ibiltzea ezinbestekoa dela. Baina entrenatzaile baten lanean muga latz bat dago: berak ez du jolastu. Praka motzak jantzi eta praka motz horien barruan duten guztia ematen ez duten bitartean, munduko entrenatzaile onenari ere ez zaizkio gauzak ongi irtengo.

Talde gaztea omen du eta pazientzia behar omen da. Edozein langile xehe baino hamar bider gehiago irabazten duen hemeretzi urteko mukizua bati hori ordaintzen bazaio, diru horrek balio duena demostra dezake elako ordaintzen zaio eta hor ez dago bueltarik ez eta pazientziarik.

Momentuz irtenbide errezena hartu dute, jokalar guztiak bidaltzea ezinezkoa dela ikusita, pertsona bat, kasu honetan entrenatzaile bidali dute.

JON ALDANONDO

● Txitxinpe ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**PUB
HAIZEA**





Tren-geltoki zaharrear, Musakolan eta Altamiran izan du egoitza Umezaintzak. Egun, San Josepen dago.

Umezaintzak 25 urte bete ditu umeak hazten

Abenduaren 16an Umezaintza sortu zela 25 urte beteko direnez, abenduan ekintza desberdinak izango dira herrian Umezaintzak antolatuta.

1970ean zabaldu zituen atek umezaintzak lehen aldiz. Urte hartan Auzo-Lagun sortu zen eta hainbat emakume kooperatiba horretan lanean hasi zenez, beharrezkoa ikusi zen haurrak zaintzeko zerbitzua antolatzeari. Auzo-Lagun, guraso, eta lan ministeritzaren laguntzarekin, Estatuko lehen aurtzaindegia laborala eratu zen. Urteak aurrera egin ahala Umezaintza indartuz joan zen, ume kopurua gehitu egin zen eta irakasleek prestakuntza jaso zuten. Batez ere 80. hamarkada arteko epea funtsezkoa izan zen Umezaintza kooperatiba bihurtu, Ikastolen Federakuntzan sartu eta bailarako beste zentru batzuekin Hezibide sortu zuelako. 80-90 hamarkadan proiektua hobetzeko jarri zituz-

ten indarrak baina garrantzitsuena zera izan zen: kokagune finkoa izatea lortu zutela. Izan ere, sortu zenetik toki desberdinetan egon da Umezaintza. San Josepen dagoenetik, zerbitzuak onera egin du eta 4 hilabetetik 6 urtera arteko haurrek dute Umezaintzara joateko aukera. Egun 200 ume daude.

Arantza Lejarraga, Umezaintzako zuzendariaren berbetan, "aurrera begira eskaerari aurre egiteko gai izango den zerbitzua antolatzeari izango da helburu nagusia. Era berean 0tik 3 urtera arteko ziklorako dirulaguntzak aurkitzen saiatu beharko dugu". Beste ikastetxeek bezala, 3-tik 6 urtera ziklorako, Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza jasotzen du Umezaintzak. Beste ziklorako, berriz, laguntza gutxiago jasotzen dutenez, galerak izaten dituzte. 0-tik 3urte arteko ziklari Diputazioaren Gizarte Sailak eta Udalak ematen diote laguntza.

Ezker Batua sozialistei erantzunez

Arrasateko Ezker Batua ez du begionez ikusi joan den astean talde sozialistak autobus geltokien inguruan ateratako idatziaren edukia. Sozialisten idatzian esaten zenez, Udalak Pesari ibilbide luzeko autobusak Zigarrolako eta erdialdeko geltokietan geratzea eskatzean San Andres auzoa diskriminatu zuen.

Sozialistei erantzuteko EBak kaleratu duen idatzian zehazten denez, Gipuzkoako Diputazioak adjudikatu dio zerbitzua Pesari eta horrek erabaki du San Andreseko eta Zigarrolako geltokiak kentzea. Gainera, Aldundiak geltokiak kenduko zituenaren berri ez ziola Diputazioak Udalari eman, eta horregatik, horren inguruko alegaziorik ezin izan zutela aurkeztu azpimarratzen da.

Ezker Batukoek zera gogoratzen diete arrasateko sozialistei: Diputazioko gobernua sozialistek osatzen dutela eta beraz, alderdi hori dela gatazkaren erantzule nagusia; horregatik, San Andreseko geltokia nahi badute, euren alderdiari eskatzea proposatzen dio EBak. Horrez gain, herritarren ongizateari buruz hitzegitean PSE-EEK hobeto duela ahoa itxita edukitzea gomendatzen die.

Bukaeran esaten denez, EBA Arrasaten autobus urbanoa jartzearen aldekoa da eta zerbitzu hori antolatzeko pausuak ematen ari da.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



HAURTOKO


Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Zentru psikogeriatrikoa eratzearen aukera Diputazioko laguntzaren zain

Buruko gaisotasunen bat izan eta hirugarren adinean dauden pertsonentzat zentru psikogeriatrikoa eratu nahi da. Aukera hori aztertu zuten asteartean Deba Garaiko Ongizate Saileko zinegotzi eta teknikariek. Zortzi udalerrietako arduradunak Diputazioari dirulaguntza eskatzekotan geratu dira, Udalek bakarrik zentruaren kostuari ezingo diote aurre egin eta.

Proposamena Aita Mennitik

Zentrua eratzearen proposamena Aita Menniko psikogeriatria departamenduak egin du. Ospitale horretan alzheimerre edo buruko beste gaisotasunen bat duten gaisoak daude, baina asmoa gai-



Buruko gaisotasunen bat duten pertsonak jasoko lukete laguntza zentruan.

so horiek ahal den eta beranduen jasotzea da. Lehen sintomak azaldutakoan gaisoa eguneko zentru espezializatu sartzan bada, gaisotasuna astiroago garatuko dela

uste dute medikuek. Zentruak egunez bakarrik jasoko lituzke gaisoak eta gauean etxera bueltatuko lirateke. Beraz, gaisoa etxean izaten duten familiartekoendako ere lagun-

garri izango litzateke.

Zentrua Arrasaten jartzeko asmoa dago, eta dagoeneko lokal bila dabilta.

Aita Menniko ordezkariek laguntza tekniko eta profesionala eskaintzekotan geratu dira. Udalek, berriz, dirulaguntza eman beharko luke. Egin diren kalkuluen arabera, pertsona bakoitzaren kostua hilean 140.000 pezetakoa izango da. Familiartekoeke ere kostu horri ezingo diotela aurre egin eta, administrazioari dirulaguntza eskatu zaio.

Zentrua eratzearen asmoa orain dela hilabete batzuk hasi zen aurrera irteten. Aurrez ere hainbat bilera egin izan dituzte Mankomunitateko udalerrietako arduradunek.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteentzako ■
Informazio Bulegoa ■
■

ANTZERKIRAKO KARAKTERIZAZIO ETA MAKILAI TAILERRA

Urtarrilaren 16an hasi eta martxoaren 21era arte

EGUNAK: Astearte, asteazken eta ostegunetan.

ORDUTEGIA: Arratsaldeko 6etatik 8etara.

HILEKO KUOTA: 3.500 pta (2.500 pta langabetu eta ikasleentzat)

Materiala barne.

Informazio eta izenematea: Gazte Bulegoan (77 00 65)



Abenduaren 20rako gertu izango dute beste proposamen bat.

Eskola Publikoak Hezkuntzaren proposamenarekin ados ez

Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunek, Arrasate eta inguruko eskola publikoetarako prestatu duten mapa eskolarraren berri eman zioten asteazkenean Deba Garaiko kontseilu eskolarrari. Hezkuntza sailaren proposamenaren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 12tik 16 urtera artekoa, Institutoan emango litzateke; Erguin, San Andres eta Musakola eskoletan, berriz, Lehenengo Hezkuntza. Aramaioko San Martin herri eskolako ikasleek, gainera, Institutoan izango lukete DBHa ikasteko aukera.

Arrasateko eskola publikoek ez dute

begi onez ikusi Hezkuntza Sailaren proposamena eta egunotan beste bat aurkezteko asmoa dute, Jaurlaritzak horretarako aukera ematen du eta. Abenduaren 20rako gertu izango da proposamena, eta egun horretan Deba Garaiko kontseilu eskolarraren aurrean aurkeztuko dute. Ondoren, Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailera bidaliko dute, eta urtarrilaren 10erako Jaurlaritzak behin betiko erabakia hartuko du.

Eskola Publikoetako arduradunek ez dute proposamena nondik joango den argitu nahi izan. Abenduaren 20ko bilera egin ostean argituko ei dute.

Hauteskunde sindikalak UCEM-en

Atzo, ostegunez, ordezkari sindikalak aukeratzeko bozketa egin behar zen UCEM Arrasaten. Astelehenean UGT, CCOO eta LAB sindikatuek zerrenda bateratua aurkeztea erabaki zuten, bi zerrenda aurkeztu dira: bata ELArena eta bestea hiru sindikatuena. Bi lantegietako langileek, guztira 83k, sei ordezkari sindikal aukeratu behar zituzten.

Kooperatibek errekurtoa aurkeztu

Iharduera ekonomikoen gainera (IEZ) dela eta, Eroski, Fagor, Ederlan, Copreci, Fagor Electronica eta Fagor Arrasatek errekurtoa aurkeztu dute Udalean. Kooperatibek zerga ordaintzean bonifikazioa kontuan izatea eskatu diote Udalari. Bonifikazioen inguruan Gipuzkoan indarrean dagoen arau foralak ez du bonifikazioen inguruan ezer zehazten, horregatik, eskaria Diputazioan egitea proposatu die Udalak.



Gabonetarako egin ezazu betirako opari bat, eta...


Zuretzat beste opari bat lortu ahal izango duzu NAROKIn.

10.000 ptatik gorako erosketa egiten duzuenen artean urrezko gargantila eta eskuturrekoa zozketatuko dira.

**Erdiko kale, 23
ARRASATE • Tfnoa: 79 20 47**



Kontuz 2.000 pta.koekin!
Durangon 2.000 pta.ko
bilete faltsuak aurkitu
ditu Ertzantzak. Oraindik
Arrasaten agertu ez
badira ere, kontuz ibiltze-
ko gomendatzen dute.
Faltsuak kolore biziagoa
du eta ez du zenbakirik
biletearen aurpegian.
Zinta magnetikoa ere oso
markatuta du eta atzeal-
dean duen lorearen
erdialdea gorri kolorekoa
da zuria izan beharrean.
Benetako bileteekin
konparatzeko hor jarri
dizkizuegu akatsak
marratxo grisen artean.
Egia esan profesionalta-
sun gutxirekin egindako
lana.



San Andresko Gazte txokoak antolatuta futbol txapelketa egon zen jokuan joan zen astebukaeran. 80 neska mutilek eman zuten izena eta partiduak San Viatorreko kantxan jokatu ziren. Hainbat eta hainbat partidu jokatu eta gero, Tximino taldeak lortu zuen txapelketa poltsikoratzea. Gazte txokoak txapelketa antolatzen duen lehen aldia da, baina izandako arrakasta ikusita errepikatzeko gertu daude.



Azken boladan **lagun asko etorri da** ARRASATE PRESS eta Telebista ikustera. Esatebatera joan zen ostiralean Arrasateko

Udal Euskaltegiko hamaika ikasle etorri ziren gurera. Itxuraz behintzat, guztiak pozik geratu ziren azalpenekin. Ez da gutxi!

IZEN PROPIOAK

● **Goizane Larrañaga**

26 urteko arrasatearra emakumearen berdintasunerako agente berria da. Rosa Mondragon haurdun dagoenez Goizanek beteko du bere lekua bajan dagoen bitartean.

● **Estibaliz Ormaetxea**

62 urteko arrasatearrak pintura erakusketa jarri du Harresi aretoan. Erakusketa abenduaren 10a arte egongo da ikusgai.

● **Jose Maria Sainz de**

Bikuña "El plan de Marketing en la práctica" liburua idatzi du. Jose Maria LKSk marketing zuzendaria da eta liburuaren aurkezpena Donostian egin zuen.



Abraham Olanok omenaldi hunkigarria jaso zuen Dorletako Santutegian larunbatean. Munduko txapelduna eta bere emaztea goizeko 11etan joan ziren Gatzagako Udaletxera eta ohorezko liburuan sinatu eta gero, Santutegirantz

abiatu ziren. Bertan txirrindularien zaindariari, Dorletako amari maillotaren eskaintza egin zion Abraham Olanok. Omenaldian Arrasateko zikloturistak ere egon ziren eta munduko txapeldunarekin argazki bat atera zuten.



AEDk antolatuta gazte talde bat Bardenetara joan zen asteburuan. Ostiralean abiatu ziren bertarantz eta domekan itzuli. Bizikletan ibiltzeko paraje zoraga-

rriak aurkitu dituzte eta joandako guztiak bizikleta-zale amorratuak direnez ezin hobeto pasa dute. Sasoi sasoi etorri direla jakin izan dugu.



Institutuko hirugarren mailako ikasleek goi mailako **moda desfilea egin zuten** Amaia antzokian ostiralean. Desfilearen helburua denboraldiko arropak erakustez gain, dirua lortzea zen. Ikasleek egiten duten ikas-

bidiarako dirua lortu guran antolatu zuten eta antzokia zelan bete zen ikusita, ziur diru mordotxo atera zutela. Ikas-bidaian ikasle batzuk Mallorkara joango dira eta beste batzuk Holandara. Ondo pasau!

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70



**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

25^{urte}

1970 • 1995



umezaintza
HAUR-ESKOLA

25. URTEURRENA

ABENDUAREN 5ean.

UMEZAINZAKO ATEAK EGUN BAT ZABALIK.

Orduak: 10etatik - 5ak arte.

Arratsaldeko 5etan: SAN NIKOLASEN OSPAKIZUNA,
ARRASATEKO UMEZAINTZAN BERTAN.
6 urtera arteko HAUR GUZTIEI ZUZENDUTAKO BOLO-BOLOA.

ABENDUAREN 12an eta 14an. HITZALDIAK MONTERRONEN.

- 12an, asteartean: Haurra eta kontsumoa; jostailuak.
Gure seme-alabei jolasten erakutsi.
Hizlaria: Pili Arin
- 14an, ostegunean: Haurra, telebista eta ahozko harremana.
Telebista oztopo edo laguntza apendizaiarentzako?
Hizlaria: Mikel Usobiaga
ORDUA: Arratsaldeko 6,30etan.



ABENDUAREN 16an, LARUNBATEAN 25. URTEURRENEKO EGUNA.

- 12etatik 2ak arte: Iturripeko Frontoian jaialdia haurrendako.
 - Jolas parkea: 4 gaztelu puzgarri.
 - Karaokea
 - Hankapalo eta malabar animazioa
 - Bonba japoniarrak
- 2etatik aurrera: Bazkaria. ESKOLA POLITEKNIKAKO JANGELAN.
Umezaintzarekin harreman izan edo duten haur,
famili eta pertsona guztiak hartu ahal dute parte.
Bazkarirako izena umezaintzan eman behar da.

ABENDUAREN 18tik 24ra. MONTERRONEN ERAKUSKETA.

- Umezaintzaren historia eta eboluzioa argazkietan.
Orduak: 6-8 ostegunetan.
Jaiegunetan: Goizez: 12-14
Arratsaldez: 6-8



Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Zortzigarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Juan Carlos Gonzalez eta Andoni Altube.*
- *Taldeen aurkezpena: AC Surcos, Orlando Piratas, Fraguel Gol eta Kopyprest.*

Zaldibar txapelketa-ko 8. ihardunaldia

jokatu da astebukeraren eta ustegabeko emaitzak izan direla esan behar. Esatebaterako HMKL taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu du Elisabeth-en kontra. Aurrera Boliek berriz, galdu egin zuen Koka Juniors taldearen aurrean eta E taldeko lidergoa galdu du Pub People-en mesederako.

Bestalde, Zaldibarren baloi lapurrak ei daude eta dagoeneko, antolaitzaileak pista susmagarri batzun atzetik dabilta. Beraz, talderen batek sorpresa handia har dezake ondorengo egunetan.



ANBOTOSTE TABERNA

- EGUNEKO MENUA
- PLATER KONBINATUAK

**ASTEBURUTAN
GOIZEKO 6ETATIK ZABALIK!**
LARREA PLAZA, 2 BEHEA
TFNOA: 79 68 30 ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Saillkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Orlando Piratas	8	7	0	1	53	18	14
Frantsizkanen	8	6	1	1	40	20	13
Kamasutra	8	5	2	1	39	19	12
Sortu Informatika	8	5	2	1	47	25	12
Sokoakoak	8	5	2	1	48	29	12
Arrasate Kirolak	8	5	2	1	29	20	12
Jotakabau	8	4	3	1	32	23	11
Totem	8	4	2	2	33	25	10
Argi Ibili	8	4	1	3	43	27	9
D. A Iriztu	8	4	0	4	39	30	8
Uglys Txinato	8	2	3	3	27	32	7
Kakajauri	8	3	0	5	28	29	6
Gualtrapas	8	3	0	5	29	43	6
Alealee	8	2	0	6	16	54	4
Bukanak	8	1	1	6	25	38	3
Toss Tehaman	8	1	0	7	12	53	2
Gaztetxokoa	8	1	0	7	21	65	2
Tronkoteak	8	0	1	7	2	13	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	8	7	1	0	46	22	15
Okoretegi taberna	8	6	2	0	27	8	14
Txeyenex	8	7	0	1	34	14	14
Adelaida haizea	8	5	1	2	47	19	11
AC Surcos	8	5	1	2	34	24	11
Hirei	8	5	0	3	33	20	10
Lorategi	8	5	0	3	20	18	10
DKB	8	5	0	3	28	26	10
Ojo Avisore	8	3	2	3	27	25	8
Los heredia	8	3	2	3	18	18	8
Fraguel gol	8	3	1	4	21	23	7
6º Proiektua	8	2	2	4	20	25	6
Aizpun Bila	8	2	2	4	12	21	6
Berango Sukaldeak	8	2	0	6	20	25	4
Kopyprest	8	2	0	6	21	51	4
Altza Porru	8	2	0	6	22	32	4
Kirten Tropel	8	1	0	7	10	31	2
Los Dalton	8	0	0	8	17	55	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Irati STS	8	7	0	1	32	19	14
Ati que te importa	8	6	1	1	31	23	13
Trikiti	8	5	2	1	30	12	12
Nuevo taberna	8	4	3	1	41	18	11
Lautherbrunne	8	5	1	2	51	28	11
Betrayer	8	5	1	2	38	24	11
Anbotoste	8	5	0	3	28	19	10
Ganbelas	8	4	2	2	28	23	10
Los Dimy	8	4	2	2	22	18	10
Borrock Roll	8	4	0	4	26	26	8
Insert Coin	8	4	0	4	39	33	8
No Comment	8	3	0	5	20	28	6
Potosorri	8	2	1	5	16	22	5
Arrasate Zoo	8	2	1	5	11	20	5
Ekisabeth	8	1	2	5	16	30	4
Txarokis	8	1	0	7	26	41	2
Const Fercon	8	1	0	7	23	57	2
HMKL	8	1	0	7	20	57	2

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Pub People	8	7	0	1	57	21	14
Aurrera Bolie	8	6	1	1	30	15	13
Cerv Leintz	8	6	0	2	29	14	12
Zotz Motz	8	6	0	2	20	20	12
Danok lagun	8	5	2	1	31	20	12
Koka Juniors	8	5	0	3	32	29	10
Perrahotsa	8	5	0	3	26	23	10
MSM Ingenier	8	4	1	3	27	15	9
Artzankos Udalaiz	8	3	2	3	22	20	8
Pepelus	8	3	1	4	31	28	7
Cartonajes Igamo	8	3	1	4	33	40	7
Ke Oxtias	8	3	0	5	35	25	6
Exc Lete	8	3	0	5	26	30	6
Leya	8	3	0	5	23	29	6
Petroleros	8	2	2	4	16	26	6
Resakas	8	2	0	6	12	32	4
Krskibalda	8	1	0	7	18	41	2
Baneuko	8	0	0	8	18	68	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 6 - D.A Iriztu 3
 Arrasate Kirolak 3 - Orlando Piratas 4
 Argi Ibili 6 - Toss Tehaman 0
 Bukanak 4 - Kamasutra 4
 Sortu Inform. 3 - Uglys Txinato 3
 Gaztetxokoa 2 - Alealee 3
 Tronkoteak 0 - Jotakabau 1
 Totem 2 - Gualtrapas 5
 Frantziskanner 5 - Sokoakoak 3

B Taldea

Los heredia 3 - Adelaida haizea 3
 AC Surcos 4 - Txeyenex 6
 Ojo Avisore 3 - Fraguel Gol 1
 Berango Sukaldeak 3 - DKB 5
 Hirei 10 - Los Dalton 1
 Aizpun Bila 1 - 6º Proiektua 1
 Fosforos 7 - Altza Porru 1
 Kopyprest 3 - Kirten Tropel 2
 Lorategi 2 - Okoretegi Taberna 6

E Taldea

Exc lete 2 - Danok Lagun 3
 Pub People 5 - Pepelus 2
 Resakas 3 - MSM Ingenier 4
 Zotz Motz 3 - Krskibalda 1
 Aurrera Bolie 3 - Koka Juniors 5
 Petroleros 2 - Perrahotsa 4
 Cartonajes Igamo 9 - Baneuko 8
 Artzankos Udalaiz 4 - Leya 3
 Ke Oxtias 2 - Cerv leintz 1

D Taldea

Const Fercon 3 - Ganbelas 8
 No Comment 0 - Betrayer 6
 Anbotoste 1 - Nuevo taberna 7
 Insert Coin 4 - Lautherbrunnen 11
 Potosorri 1 - Trikiti 3
 Los Dimy 2 - Arrasate Zoo 0
 Elisabeth 4 - HMKL 5
 Borrock Roll 2 - Irati STS 5
 Ati que te importa 6 - Txarokis 3

Hurrengo partiduak

9. ihardunaldia

**Larunbata 2
Zaldibar**

8.50 Bukanak - Gualtrapas
 10.00 Zotz Motz - Leya
 11.00 Los heredia - DKB
 12.00 Adelaida Haizea - Okoretegi Taberna
 13.00 Toss Tehaman - Alealee
 14.00 Aure Bolie - Ke Oxtias
 15.00 Ganbelas - Txarokis
 16.00 Orlando Piratas - Totem
 17.00 Insert Coin - Irati STS
 18.00 Arrasate Kirolak - Jotakabau
 19.00 Nuevo taberna - arrasate zoo

Iturripe A

10.00 Resakas - Koka Juniors
 11.00 Ojo Avisore - Los Dalton
 12.00 Txeyenex - Kopyprest
 13.00 Hirei - Lorategi
 14.00 MSM Ingenier - Perrahotsa
 15.00 Potosorri - ati que te importa
 16.00 Fraguel Gol - 6º Proiektua
 17.00 Const Fercon - Lautherbrunnen
 18.00 Pub People - Baneuko
 19.00 Argi ibili - Uglys Txinato

Iturripe B

14.00 Anbotoste - Trikiti
 15.00 Berango Sukaldeak - Kirten Tropel
 16.00 No Comment - HMKL
 17.00 AC Surcos - Altza porru
 18.00 D,A Iriztu - Sokoakoak
 19.00 Los Dimy - Elisabeth

**Igandea 3
Zaldibar**

8.50 Kakajauri - Kamasutra
 10.00 Betrayer - Borrock Roll
 11.00 Danok Lagun - Cerv Leintz
 12.00 Sortu Informatika - Frantziskanner
 13.00 Exc Lete - Krskibalda

Iturripe A

11.00 Aizpun bila - Fosforos
 12.00 Petroleros - Cartonajes Igamo
 13.00 Pepelus - Artzankos Udalaiz

Protagonistak

**Igor Gauna
Txeyenex**

— AC Surcosi 4 eta 6 irabazi, emaitza ona, ezta?

— Emaizta ona da baina lurra oso labankorra zegoen, askotan jausi gara eta jokaldi eztabaidatsu batzuk izan dira, beraz, azkenetan iskanbila txiki bat egon da gure artean. Talde biak goialdean gaude sailkatuta eta oso garrantzitsua zen partidua irabaztea.

— Irabaztera edo jokatuzera kantxaritzen zarete?

— Irabaztera zalantza



barik. Hala ere, esan behar dut taldean jokalaririk onak dardela, beraz, irabazteaz gain ondo jokatzen dugu. Ondo jokatuta, batez ere, Zaldibarren,

Iturripeko kantxa txikiagoa da eta okerrago gabilta.

— Aurten zein da zuen helburua?

— Ahalik eta urrutien helburua. Bigarren fasera sailkatzeko ez dugu arazorik izango eta gaur arte moduan jokatzen jarraituz gero, ondo kokatuta buka dezakegu txapelketa.

— Emakumeak Zaldibarren jokatzea nola ikusi zenuke?

— Oso ondo eta gainera neska batzuk primeran jokatzen dute. Emakume talderen bat animatzea ondo logoke.

Labur

■ **9. ihardunaldian neurketa interesgarri ugari jokatuko da Zaldibar eta Iturripen. Zapatuan 11etan Zaldibarren Los Heredia eta DKB izango dira aurrez aurre. 12etan Adelaida Haizea eta Okoretegi taberna. Iturripe Bn: 12etan Anbotoste - Trikiti eta 6etan D. A Iritzu Sokoakoak. Domekan 11etan Danok Lagun Cerveceria Leintz eta 12etan Sortu Informatika Frantziscanner.**

**Jose
Urionabarrenetxea
Cartonajes Igamo**

— Nola joan da partidua?

— Baneuko taldeari 9 eta 8 irabazi diogu. Neurketa, dena dela, gogorra izan da eta nahiko urduri egon gara derri gorrez irabazi behar genuen eta.

— Bigarren fasera pasatzea zaila ikusten duzu?

— Taldekideak oso itxaropentsu daude baina nik

baditut nire zalantzak, zaila ikusten dut bigarren faseko txartela. Hemendik aurrera lortzen ditugun emaitzen arabera egongo da sailkapena. Neurketa guztiak irabaziaz gero izango dugu aukera.

— Entrenatzen duzue astean?

— Lagun talde bat gara. Gure helburua ondo pasatzea da horregatik ez dugu txapelketa seriooki prestatzen. Gainera gehienok kanpoan ikasten dugunez asteburutan elkartzen gara.



— Euriarekin jokatzea gustatzen zaizu?

— Ez zait inporta euria-ekin edo barik jokatzea. Euriarekin labanagoa egoten da kantxa, gehiagotan jaus-ten gara eta beharbada ikusleek hobeto pasatzeko aukera dute. Bestalde egia da ere, lesio larriagoak izateko arriskua dagoela.

— Baduzue jarritzaile itsurik?

— Ez, ez dugu. Neska talde bat partiduz partidu animatzen edukiko bagenu ziur hobeto ibiliko ginatkeela.

elkarrizketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarrizketa eta akordioa direla uste dutenak.

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihur dadin.

baina ez da nahikoa

Elkarrizketak guztion laguntza behar du. Zuk ere laguntzeko aukera duzu.

elkarri

Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu: **elkarri**, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

1. Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut.
Hileroko kuota (14 kuota urtean):
 1.300 pzta 2.000 pzta 5.000 pzta 10.000 pzta
Aportazio bakarra:
 10.000 pzta 25.000 pzta 50.000 pzta 100.000 pzta

(Laguntzaile guztiek **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)

2. Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut.
Ordaintzeko era:
 4.000 pzta (urtean behin) 1.000 pzta (3 hilabete behin)

3. Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)

Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Herria.....
Herrialdea..... Posta kodea.....
Telefonia.....
Banku edo aurrezki kutxa.....
Sukurtsal helbidea.....
Sukurtsal zkia..... Kontu zenbakia.....

AP XII-95



AC Surcos



Orlando Piratas



Fraguel Gol



Kopyprest

**Haurdun
dauden
neskentzat
egun-
eguneko
moda**



**Udazkene-
rako moda
gaztea,
taila
bereziak
barne**

Laura

**Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**

Hies Ekimena

Hiesaren inguruko mamuak uxatzen

Maidar Egües

Abenduaren 1a: Hiesaren Nazioarteko Eguna, gaisotasun honen inguruan jendeak erreflexioa egiteko eguna. Bada abenduaren 1ean ezezik, egunero egunero kezka berarekin esnatzen den lagunik. Horietariko batzuk Hies Ekimenan, Deba Bailarako Hiesaren Aurkako Komisioan lan egin eta laguntzen dutenak dira. Arrasaten daukate egoitza eta laguntzaile sare txiki batekin Hiesaren inguruko mamuak uxatzen ahalegintzen dira.

Deba Garaiak Jon Salaberriri zor dio eskualdeko Hiesaren Aurkako Komisio Hiritarra. Hies Ekimena komisioa eskualdeko jendea prebenitu, informatu eta seropositiboek laguntza eskeintzen dien bailarako talde bakarra da, horixe izan zen eta Jon Salaberriren ametsa 1991an proiektuari ekin zionean. Orain, langile batek eta laguntzaile sare batek jarraitzen dio Jon Salaberrik hasitako bideari, oztopoz eta ilusioz betetako bideari.

JON SALABERRI FUNDATZAILE

Iñaki Telleriak, Hies Ekimena komisioan lan egiten



Jon Salaberrik sortutako Hies Ekimena komisioan kolaboratzaile sare batek egiten du lan.

duen ordainpeko bakarrak, emozioz aipatzen du Jon Salaberrik izan zuen balentria. Eskualdean Hiesarengatik infektatutako geroz eta pertsona gehiago zegoela, hauek nora joan ez zutela eta infor-

mazioa zabaltzeko beharra ikusita, Jonek bakarrik ekin zion proiektuari.

“Jonek 1991an izan zuen bere gaisotasunaren berri. Bere bizitza antolatu eta eskualdean Hiesaren aurkako talde

baten beharra zegoela ikusi zuen. Gasteizko talde batekin harremanetan jarri eta eurekin aritu zen lanean denboraldi baten. Bere asmoa ez zen talde honetako bazkide izatea. Bera ikastera joan zen, talde

hura nola antolatuta zegoen ikustera gero hemen aplikatzeko. Lan asko egin behar izan zuen baina erantzun ona jaso zuen. Arrasateko Udala laguntzeko prest agertu zen eta lokal bat utzi zion. Gutxinaka gutxinaka bazkide eta laguntzaileak lortu zituen eta horrela jaio zen Hies Ekimena, ofizialki 1993ko maiatzaren 12an. Argi dago Jonek lana eginez sortu zuela hau”.


ONGen FILOSOFIA BERA

Hies Ekimena talde independentea da. Arrasateko Udalak eta Osakidetzak ematen dioten diruarekin lortzen du finantziaketa, baita komisioak berak dauzkan iturrietatik ere. Iñaki Telleriak izan ezik, gainontzeko bazkide eta bolondresak musutruk egiten dute lan, borondatez, horixe da eta Hies Ekimenaren oinarrietariko bat.

Iñaki Telleria taldearen izaera horren aldekoa da, “Hies Ekimenak ONGen antzera funtzionatzen du eta horrela jarraitu nahi du. Bolondrestza dela eta Hies komisioak bi korrontetan banatuta daudela esan daiteke. Badira batzuk ordaindutako 15 edo 20 lagunekin lan egin eta ahal beste zerbitzu eskaintzea dutenak helburu. Komisio horiek enpresa filosofia daukate, diruari esker bizi dira. Guk ez dugu hori nahi. ONGak borondatezkoak izan behar direla uste dugu, bestela euren izaitea galtzen dute. Langile bat daukagu beharrezkoa zaigulako, baina ez guke kopuru hori gainditzetik nahi, baldin eta guztiz beharrezkoa ez balitz. Argi dago ONGek bihotzez funtzionatu behar dutela, ez diruaz, eta guk ez guke etika hori sekula arriskuan jarriko”.

ESKAITZEN DITUEN ZERBITZUAK

Deba Bailarako biztanlegoa informatu, prebenitu



Era guztietako lanak egiten dituzte kolaboratzaileek; jendaurrean nahiz komisioko bulegoan.

eta seropositiboek osasun laguntza, juridikoa eta ekonomikoa eskaini. Aipatutakoak Deba Bailarako komisioak eskaintzen dituen zerbitzuak dira. Teorikoki, Hies Ekimenak heltzen zaizkion ezuzteko eskaera guztiei erantzuten die: Seropositibo batek laguntza juridikoa behar duenean, bere zerbitzua borondatez eskaini duen abokatu batek erantzuten dio musutruk. Osasun kontuekin gauza bera. Infektatutako batek akupuntura edota masaiak behar izan eta ordaintzeko dirurik ez duenean, komisioak zerbitzu hori eskuratzen dio. Diru sarrearririk ez badu gaisoak ez dauka ordaindu beharrik. Psikologo eta gizarte lagunt-

zaileen beharrekin berdind jokatzeko komisioak.

Hies Ekimenaren barruan bada seropositiboek osatzen duten “Auto-Laguntza” taldea ere. Bere helburua euren artean hitzeginez gaisotasunaren pisua jasankorrago izatea da. Talde honen jarraipena oso zaila da. “Taldea osatzen dutenak gaiso terminalak dira eta ospitalean egoten dira gehien bat. Horregatik, zaila da maiztasun konkretu batez elkartzea. Indarrez aurkitzen diren seropositiboek, ez dute talde hauetara joaterik nahi izaten, bizitza normala egin nahi izaten dute eta. Beraz, oso zaila da horrelako talde bat finkatzea” dio Iñakik.

Baina bada seropositi-

boen aldetik komisioek eskaintzen dituzten zerbitzu hauengan kezka bat: zerbitzuen % 50a edo 75a prebentzioari eta informaziori zuzenduta dagoela ikustea, hau da, gizarteari, eta seropositiboak bigarren mailan geratzen da. Kezka honen aurrean zera dio Iñaki Telleriak. “Hies Ekimenak informazioaren eta prebentzioaren aldeko apostua egin du. Hiesa bere kontestuan sartzeko modurik onena dela uste dugu. Jendeak jakin behar du Hiesa trasmisio sexuarekin gaisotasun bat besterik ez dela, sifilisa edo gonorea bezala.”

Aurrekoa egia izan arren, jende askok marginatu egiten ditu seropositiboak. Iñakiren

**ARRASATEARREN
AZALEKO
ELKARTASUNA**

Arrasatearrek elkartasuna adierazten dute gaisotasun honekiko baina euren ekimenez ez ei dute laguntzarik eskaintzen. Horrela laburtu daiteke arrasatearrek Deba Garai-ko komisioan daukaten partaidetza. Taberna etabarretan ez da seropositiboekin arazorik egoten baina arrasatearrak ez dira gai honetan gehiegi bustitzen. Elkartei laguntza eskatzen zaienean ez dutela ukatzen aitortzen du Iñaki Telleriak, baina orokorrean euren burua eskaini ere ez dutela eskaintzen azpimarratzen du. "Azaleko elkartasuna da arrasatearrek erakusten dutena. Laguntza

eskatzen zaienean ematen dute, baina eskatzen zaienean bakarrik".

Laguntza gehiago izatea gustatuko litzaiekeen galdetzearan, gaisotasuna normal-kuntzara eramatea nahi dutela eta jendea presionatuz ez luketela lortuko erantzuten du Iñakik. Hies Ekimena geldialdi sasoi batean sartu dela onartzen du. "Jendea bere kabuz hona etortzeko zain gaude, ez dugu inor behar-terik nahi, horregatik konformismo etapa batean gaudela esango nuke nik. Noski, horrek ere badu bere arriskua, hau da, bakar bakarrik gera gaitezke. Dena dela, oraindik jendearen kontzientzi onean sinisten dugu".



Domi Korta: Ama baten kemena

Hies Ekimena sortu zenetik laguntzaile sutsuenetakoa da emakume hau. HIESaren arazoa etxean bizi du, semea gaixo gaixo, hiltzear dauka eta. Hala ere, berak esaten duen moduan, jendaurrean malkoak gorde eta barrea erakusten saiatzen da.

— Zela azaldu dezakezu zure esperientzia Hies Ekimena komisioan?

— Ez daukat ezer txarrik esateko. Komisioko lanak eta bertako jendeak aurrera egiten laguntzen dit. Horiek dira orain nire bizitzako makuluak. Hies Ekimenako partaide izateak daukadan arazo honegatik bertan behera ez erortzen laguntzen dit. Zer eskaini badudala eta jendeak nire laguntza behar duela ikustea mantentzen nau zutik. Pertsona moduan hobetu egin naizela uste dut. Bes-



teengan gehiago pentsatzen dut eta garrantzitsua sentitzen naiz.

— Semea oso gaixo daukazu. Badago daukazun sentimentuak azaltzerik?

— Ama bezela amorrua eta inpotentzia sentitzen dut. Gauean, Iñaki lotan dagoenean eta bere alboan esartzen naizenean, sekulako tristura sentitzen dut. Bere sufrimenduaren zati bat neureganatu nahi nuke baina ezin dut ezer

egin. Hala ere bera eta ni alai egon gaitezen ahalegintzen naiz. Gaur gauean salda pixka bat eta ardi-txuleta batzuk jan ditu eta horrek izugarri poztu nau. Ni neuk ere txisteak egiten dizkiot berari. Orain gauza txikienek ere poztzen naute. Dena den badakit gehiago sufrutuko dudana oraindik. Semea galdu berri zuen emakume batek zera esan zidan behin: "Semea galtzen duzun arte ez duzu jakingo zer den benetako sufrimendua" eta esaldi hori ez dut sekula ahaztuko. Dagoeneko hasi naiz min hori sentitzen eta badi-rudi ez daukala amaierarik.

— Zelan mantentzen zara tinko?

— Jendearekin. Maite nautela sentitzea eta maitasun hori sentitzea behar dut. Nire bizitza maite nauen jendearen inguruan antolatu dut.

ustez, sekulako interes ekonomikoak daude irudi negatibo hau emateko: "Hiesaren birusaz kutsatutakoak irudi txarra izatea, beste kontu bat da. Gizarteko zenbait tokitan sortu eta zabaldu duten gezurrezko irudi bat da. Elizak eta jende intoleranteak gaisotasun berezi bihurtu dute Hiesa. Elizak arrisku taldeak jendea moralizatzeko eta mezu apokaliptikoak zabaltzeko erabili zituen. Intoleranteek aukera ezin-hobea ikusi zuten homosexualak eta drogazaleen aurkako jarrera bat azaldu eta Hiesari buruzko irudi txarra zabaltzeko. Hiesak indarra dauka eta modan dago, tar-tean interes ekonomiko asko dagoelako."



Zer egiteko gauza diren erakutsi beharko dute eskubaloikoek Iturripen.

Eskubaloikoak kezkatuta ezin dutelako garaipenik lortu

Rosa Lasagabasterren mutilak bolada txarra pasatzen ari dira denboraldia hasi zenetik. Goialdean ibiltzeko taldea osatu zuten eta jokari dagokionez maila erakutsi duten arren, emaitzak ez diete laguntzen. Gaur arte sei partidu jokatu dituzte eta oraindik ez dute garaipenik ezagutu. Puntu bakarraz sailkapeneko azken tokian daude. Taldeari zer gertatzen zaion ezin azaldu dabilta entrenatzailea eta jokalaria. Taldean giro jatorra dago, entrenamenduetan bikain egiten dute lan eta partiduetan ere ez dira txarto ibiltzen, baina azkenean ezin izaten dituzte puntuak lortu. Beharbada lehen garaipena falta zaie konfidantza hartu eta behingoz taldea finkatzeko.

Hain beharrezkoa duten garaipena lortzeko aukera datorren zapatuan izango dute Iturripen. Arrasate eta Vigo taldeek elkarren kontra jokatuko dute arratsaldeko 6.30etan. Hala ere aurkariek ez diete kontuak samur jarri-

ko eta kementsu egin beharko dute lan partidu osoan.

Vigo taldea sailkapeneko 9. tokian dago 4 puntuarekin. Orain arte neurketa bakarra irabazi du, bi berdindu eta hiru galdu. Talde horrek oso ondo jokatzen du baloia eta duten banan banako teknika azpimarragarria da. Talde lanean berriz, ez dabilta hain ondo eta hori aprobe txatu beharko du Arrasatek zerbait positiboa ateratzeko. Esperientzia handiko jokalariek osatzen dute taldea, esate baterako Chamorro hegaleko ezkertiarra. Arrasate aurkariaren jokua kontrolatzeko ideia garbiki kantxaratu beharko da. Esnal eta Enbilek ziurrenik defentsa mistoa izango dute eta gainontzeko jokalaria blokeoak egiten eta lekuak bilatzen saiatu beharko dira.

Itxuraz irabazteko moduko partidua Mondrarentzat

3. mailako Mondraren arerioa Euskal Herriko Unibertsitatea izango da dome-

kan 3.30etan Atxabalpen. Mondrak hiru partidu jarraian irabazi dituela eta nahiko ondo jokatzen ari dela kontuan hartuta, laugarrena lortzeko zailtasunik ez duela izango ematen du. Dena dela, hori jokalariek egiaztatu beharko dute zelaian. Etxeko taldean Ruben, Oxel eta Beñatek lesionatuta jarraitzen dute, Zuluetak ezingo du jokatu txartelak direla medio eta Ruben Leiba partidu bateko zigorra bete eta gero, jokatzeke gertu izango da. Euskal Herriko Unibertsitatea taldea sailkapeneko 19. tokian dago eta 13 puntu ditu hiru partidu irabazi eta gero.

Lehen erregionalean aldaketak izan dira eta orain arte Jose Luis Sextok gidatu duen taldea Jesus Mari Barrutiabengoaren eskuetara pasa da. Hauek zapatuan Bergararen kontra jokatuko dute Atxabalpen arratsaldeko 3.30etan.

Bestalde, Ohorezko mailako entrenatzaile berria Asier Zubillaga izango da.

LABURRAK

Eskuz binakako Santamas Txapelketa jokoa

Eskuz binakako Santamas txapelketako bi partidu jokatuko dira Iturripen zapatuan goizeko 11etatik aurrera. Lehen neurketan Mujika-Zubillaga bikoteak Etxeberria-Korta I bikotearen kontra neurtuko ditu indarrak. Bigarren norgehiagokan Zugasti-Zuazubiskar eta Juantxo-Rubia izango dira aurrez aurre. Eskuz banakako txapelketako partiduak bestalde, asteazkenetan jokatuko dira Iturripen arratsaldeko 5.30etan.

Gipuzkoako taldekako txapelketan Arrasatek Azkoitian kontra jokatu zuen eta arrasaterrek 22 eta 21 irabazi bazuten ere, Korta II eta Zuazubiskar ez dira sailkatu finalerdiak jokatzeke.

Aitor Arnaiz korrikalaria 60 metroan ezin hobeto


Aitor Arnaiz Arrasateko atletak 60 metroan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketara joateko gutxieneko denbora lortu zuen Anoetako pistan burutu zen txapelketan. 7" 15 ehuneneko izan zen Aitorren denbora, Arrasateko errekorra berak du 7" 10 ehunenekotan. Altueran Jokin Diaz Lezamak ere aipatutako txapelketetara joateko gutxieneko marka lortu zuen metro bat eta 80 zentimetroko jauzia egin eta gero. Arrasateko hamar atleta aritu ziren: laurogei metroan Raul Canales, Bittor Rodriguez, Miguel Sancho eta Mikel Arregi. 600 metroan Oliver Fernandezek. 3.000etan Iban Juez eta pisuan Asier Fernandez de Arroia.

Gaizka Aranegi: Arrasateko lehen gerriko beltza

Gaizka Aranegi gerriko beltza lortu duen lehen arrasatearra da. Judoan dagoen gerriko preziatuenaren jabe egin da 19 urteko gaztea. Gaizkarentzat judoa kirola baino zerbait bereziagoa da "lau urterekin hasi nintzen judoan. Orduan jolasa zen niretzat. Ondoren txapelketak etorri ziren, hasieran ez nuen irabazten baina gero lehen garaipenak lortu nituen eta judoa beste modu batean hasi nintzen ikusten". Ekinaren ekinez lorpen handiak lortu ditu Gaizkak. Azkena eta garrantzitsua gerriko beltza, "zazpi urte gerriko marroiaz ibili naiz baina hiru hifabete dela beltza lortu nuen. Lorpen horrekin epaile edo entrenatzaile tituloa lortzeko aukera izango dut eta baita beste titulo batzuk ere. Gerriko beltzen artean lehen gradua lortu dudan arren, judoka batentzat oso interesgarria eta garrantzitsua da gerriko hori lortzea."

Azterketa teorikoa eta praktikoa

Gerriko beltza lortzeko entrenamendu asko egin eta teoria ere ikasi behar izaten da. Azterketak bi zati ditu: praktikoa eta teorikoa. Praktikoan egiteko gerriko beltza atera nahi duten guztiak egun batean elkartzan dira, Gaizkaren kasuan Errenderin, eta hainbat frogak gaitzitu behar dute. Txapelketa 5 ligatan



Gaizka Aranegi etorkizuneko judoka.

dago banatuta eta liga bakoitzean puntu gehien lortzen ahalegin behar du judokak. Gerta daiteke frogak gainditzea baina beharrezkoak diren puntuak ez lortzea. Horrela izanik, beste ligatan sartzeko aukera dago eta borroka desberdinak irabaziz puntuak lortzeko. Bertan gaitzitu nuen tarte praktikoa eta teorikoa alde batera utzi nuen asko ikasi behar zelako eta denborarik ez nuelako. Aurten berriz, animatu egin naiz, ikasi egin dut eta gerriko lortu ere bai".

Gerriko beltza eskuan duela Gaizkak garbi ditu aurtengo helburuak "Junior mailan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak ira-

bazi nahi ditut eta Espainiako txapelketan dominaren bat lortu. Seniorretan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan goian ibiltzea gustatuko litzaidake". Judoka gazte honek jakin badaki judotik bizi izatera ez dela helduko, gaur egun ezinezkoa da eta "aipatu ditudan txapelketak irabaziz gero, nahikoa litzateke. Izan ere, judotik bizi izatea ezinezkoa da. Hortik bizi direnak profesionalak dira hortan buru belarri dabilzanak. Nik berriz, ikasi egiten dut eta jarraitzeko asmoa daukat. Judoa kirola egin eta ondo pasatzeko eta ahal denean zerbait irabazteko hobbya da".

Saskibaloia derbia La Casilla kiroldegian

Urbina Maltzaga eta Bilbao Patronato taldeen arteko partidua egongo da ikusgai domekan eguerdiko 12etan La Casilla kiroldegian. Goi mailako neurketa izan daiteke, EBA ligan goialdean dauden bi taldek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak eta. Bilbao Patronato sailkapeneko 2. tokian dago 21 punturekin. Jokaturako hamabi partiduetatik bederatzira irabazi ditu eta hiru galdu. Samaniegoren mutilek azkenaldian lortutako emaitza onei esker 5. tokiraino igo dute eta 19 puntu dituzte une horietan. Urbina Maltzagak denboraldi hasieran izandako emaitza txarrak dagoeneko ahaztu direla dirudi, eta goian egoteko taldea dela erakusteko aukera paregabea izango du Patronatoren aurka.

Samaniegoren esanetan partidua EBA ligako goi postuetan finkatzeko erabakiorra izango da. Horretarako Arrasateko jokalariek ezin dute huts egin.

Bilbao Patronato taldeak ondo daki taldean jokatzeko eta jokalariek denak kontuan hartzekoak dira. Talde sendoa eta arriskutsua izaten da, batez ere etxean jokatzeko duenean. Horren lekuko oraindik ez duela partidurik galdu La Casillan. Neurketa ETBk zuzenean eskainiko du eguerdiko 12etan.

S. CARRASCAL

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak

Fabrikari erakusketa

GIPUZKOAN ETORBIDEA.

6 -1A

AGR

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar

MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Bittor Iñarra

Indonesiako gatazka abertzaleak

Hilabete luzeak, emango nituzke Indonesiako 13.700 irlak bisitatzen. Nere burutaziozko bidai honetan jendea bizi den 1.000 irla horietako 336 talde etniko desberdinen ohiturak, kultura, musika, dantzak eta artea dastatu, miretsi eta gozatu nituzke, erabiltzen duten 250 hizkuntzek, burukomin jasan ezina sortzen ez badirate.


Arabe, sanskrito, txinera, tibetera, hinduera, latina... ikasi beharko nituzke Konstituzioak onartzen dituen erlijioen jatorrizko liburuak irakurtzeko. Islama, budismoa, hinduismoa eta kristautasuna bi eratarata, katolikoa eta protestantea. Gehiengoa, hala ere, islamak du, %87a.

Desberdintasunen aniztasuna, nabarmena da bizitzaren arlo guztietan. Harrigarria da Gobernuaren lana 180 milioi indonesiatarrengan batasun eta herri nortasuna sortzeko eta mantentzeko.

Sistemak badauzka bere gune beltzak. Hauetariko bat artxipelagoaren ekialdean dagoen Timor Timur edo Timor probintzia litzateke.

Ordura arte erreinu txikietan banatuta zegoen irla honetara, 1.500. urtean iritsi ziren portugaldarrak sandalo zuhaitzaren egurraren bila.

Holandarrak geroxeago agertu ziren, eta borroka batzuren ondoren irlaren ekialdeko erdia portugaldarren agintepean gelditu zen. Timtimtarren erresistentzia nabarmena zen eta portugaldarrak ejerzito indartsu bat kolonian mantentzera behartuta zeuden 2. munduko gerratean, britaniarrak Asiako hegoekialdean holandarren kolonia



gehienez jabetu ziren, baina, berehala japoniarrek hartu zuten hauen lekua. Gerratearen bukaeran, 1945.ean, portugaldarrak bueltatzen dira irlaren ekialdeko zatia kolonia bezala mantenduz, holandarren koloniak Indonesia bihurtzen diren bitartean.

Portugaldarrek 1974an eta askatasuna ematen diote Timimeri. Sortzen den alderdi politikorik indartsuena Fretilin da (ekialdeko Timorentzat askatasunaren talde iraultzailea). Timtim herrialde independente bezala osatzen da. Indonesiak bere batasunerako arrisku bezala ikusten du hau dena eta komunistatzat jotzen du Fretilin. EEBBko Henry Kissingerren bisita bat bukatzetik zortzi ordura, lurrez, itsaso eta airez sartzen da Indonesia Timor Timurren.

1976.ean Indonesiak Timtim anexionatzen du, mendira joandako Fretilinek sortutako gerrilaren kontra diharduela. Australia, EEBB eta islamista herrialde gehienak anexioa onartzen dute, baina

beste herrialde batzuk ez. 1979.ean Indonesiak lurraldea "baketzen" bukatzen du. Hasieran bizi ziren 650.000 bizilagunetatik ofizialki 100.000 hildako, herriaren hitza, ordea, 200.000.

Indonesia, portugaldarrek utzitako infraestruturari hobetzen duen bitartean, beste irletatik jendea exportatzen hasten da, batez ere Jawatik. Honek bertako kultura eta ohituren desgastea eta desagertzearen arriskua dakar. Portugaldarren kolonialismopean bertakoek ez zuten negoziarik zabaltzeko baimenik eta gaur egun etorriberriak samur lortzen dute negozioak finkatzea.

1992. urtean 15.000 soldadu indonesiar zegoen Fretilinen 1.500 partaideen kontra egiteko. Gainera Gobernuak komunikabideak kontrolatzen ditu eta indonesiarrek ez dute berri iturri fidagarririk. Gehienek Gobernuaren hitza sinesten dute, hau da, delikuentzia tasa ezohizko handia da edo Portugalek antolatutako konplot

bat dela, lurraldea berriro berreskuratzeko eta ejerzitoa beharrezkoa dela han egotea.

Timtimeko gaiak gaurkotasuna irabazi du azken istiluekin. Alde batetik, timtimtarrek emigranteen aurkako ekintza batzuek, eta besteik Fretilinen bost partaideek Bretaña haundiko enbajadari egindako babes politikoaren eskakizuna (guztira 41 lagun dira 1993.etik babes politika eskatu eta Portugalen lortu dutenak). Badaude erlijio arazo bat dela diotenak, timtimtarren %91a katolikoa baita eta inmigranteak protestante eta batez ere musulmanak. Benetako arazoa, askoz ere sakonagoa da.

Gobernuaren kolonizazio kanpaina hain ona izan da zein gaur egun, askatasunaren aldeko erreferendum bat egongo balitz Fretilin alde dauden %90 timtimtarrek bere ametsa suntsituta ikusiko lukete eta integrazioaren aukerak irabaziko luke. Hala ere timtimtar gutxik joko luke bere burua indonesiotzat.

Azterkosta Proiektua

Kostaldearen gaur egungo kutsadura egoera larriak bultzaturik 1987an Irlandan "Coastwatch" proiektua diseinatu zuten. Geroago beste herrialde europarretan garatu izan zen. Euskal Herrian iharduera honek "Azterkosta" izena jaso zuen.

Herrialde bakoitzean, proiektuaren garapena posible izan da interesik gabe lan egiten duen laguntzaile, ikasle eta erakunde bolondres talde handi bati esker.

Herrialde bakoitzeko laguntzaile hauek, beharrezkoa den informazioa jasotzen dute. Ondoren beste europar lurraldeetan jasotakoarekin batu eta konparatu egiten da, azkenik kostaldearen egoerari buruzko txostena idazten da.

Beraz, San Viator ikastolako Bizigirosan Osasun moduloko 1. mailako ikasleen partaidetza Azterkosta proiektuan laguntzaile gisa izan da, Hondarbeltzetik (Deba) Mutrikuko portura arteko kostaldearen egoerari buruzko informazioa jasoz.

San Viator ikastolako bizigirosko ikasleak proiektu honetan parte hartzean Azterkostako helburuekin bat datoz:

a) Herri eskualde eta nazioarte mailan biztanlegoaren atentzioa eta kostaldearen babes areagotu. Euskal Herriko itsasadar eta kostaldeko egoeraren inguruan jendea kontzientziatu.

b) Kostaldeak dituen kutsadura arazo eta mehatxuei buruz iritziak ezagutarazi. Babes neurriak hartzeraz derriortu itsasertzeko herriei, kostaren babes lanetan lagunduz.

d) Europako itsasertzaren egoerari buruzko nazioarteko informazio multzo zabal eta bateratu bat sortu,



ingurugiro gestiorako erabilgarria izan daitekeen modu batean bilduz.

e) Beste ingurugiro informazio-bilketei egokitu daitekeen nazioarteko sare bat sortu eta garatu.

Gizarte eta hiri industrializatuaren bateratzeak argi eta garbi ikus daitezke naturari egiten dioten erasoengatik.

Gure eskualdea hobeto aztertzeotan 5 taldetan banatu ginen bakoitzak zati bat hartuz. Zati bakoitzean emaitza ezberdinak bildu genituen halanola; Mutrikuko portuan Deba ibaiaren itsadarrean eta Hondarbeltz hondartzan kutsadura

aztarna garrantzitsuak aurkitu genituen. Urari gizakia- ren presentziak sortzen dion kutsadura agertzen zen, materia organiko ugari agertzen zen eta bereziki giza hondakin fisiologikoak (gorotza, gerrua...) eragindakoa. Beraz ur honen baldintzak ez dira egokienak bainurako.

Mutriku eta Deba artean dagoen gunea, aldiz nahikoa garbia zegoen.

Hau ikusirik ondoriozta dezakegu gizakia, eta berarekin batera industria dagoenean, lekuetan kutsadura (bai zabor eta bai ur zikin moduan) askoz ere handiagoa dela,

honek biodibertsitatearen gutxitzea dakar.

Guzti hau ekiditzeko zenbait neurri hartzeko beharrean gaude. Agian garrantzitsuena jendearen kontzientziarioa litzateke, hau izanik gure inguru giroaren berreskurapenerako urrats izugarri bat.

Zenbait neurri gogor hartzen ez baditugu, ze ingurugiro mota utzi behar diegu gure ondorengoei?

**SAN VIATOR IKASTOLAKO
BIZIGIRO OSASUN
MODULOKO
1. MAILAKO IKASLEAK**

Emaitz mikrobiologikoak (Hodi anitzen metodoa)	Coliforme fekalak	Streptococcus fekalak
Debako itsasadarra	≥ 1000/100 ml	≥ 1000/100 ml
Ondarbeltz	200/100 ml	200/100 ml
Arbe	Ez dira aurkitu	Ez dira aurkitu
Punta Alkolea	Ez dira aurkitu	Ez dira aurkitu
Mutrikuko portua	≥ 1000/100 ml	≥ 1000/100 ml

Gurutze Mujika

Mendiko paisaiak maitasunez margotzeko gogoa

Gurutze Mujikak 36 urte ditu. Beasaingo Garinen jaio zen baina duela 4 urtetik Aretxabaletako Areantza auzoko Etxeberri baserrian bizi da. Akaso horregatik maiteko du hainbeste mendia eta hori da bere koadroetan isladatzea gustatzen zaiona. Abenduaren 5etik urriaren 7ra bere margoak erakusgai jarriko ditu Areantzako Mitarte Garai nekazal etxean.

— Non ikasi zenuen margotzen?

— Betidanik margotu izan dut neure kontura, nahiz eta azken 5-6 urteotan denbora gehiago eman honetan. Dena dela ikastaro batzuk ere egin ditut, Iruñan eta Bergaran, Abdon Juaristirekin.

— Mitarte Garain jarriko duzun erakusketa, lehena izango da?

— Ez. Bergaran eta Leitzan egin ditut erakusketak.

— Koadroez gain margotzen duzu beste ezer?

— Bai. Rebisteroak, lurrezko ontziak, esneontziak, aulkiak...

— Ze marrazki egiten dituzu koadroetan?

— Koadroetan batez ere paisaiak margotzen ditut, baserriak, basoak, bodegoiak... Lurrezko ontzietan lorak marratzen ditut baina pertsonak ere marratu izan ditut, enkarguen arabera.

— Zuk asmatutako paisaiak eta marrazkiak izaten dira edo argazkietatik ateratzen dituzu?

— Normalean argazkietatik ateratzen ditut baina kanpoan margotzea ere asko gustatzen zait eta eguraldi ona egiten duenean ateratzen



naiz hemen inguruko paisaiak margotzera.

— Toki pribilegiatuan bizi zara paisaiak margotzeko...

— Bai, egia da. Inguruko paisaia asko margotu dut bertatik mugitu barik, gainera erakusketan jarriko ditudan horiek izango dira.

— Zein kolore atsegin duzu?

— Kolore beroak erabiltzea gustatzen zait; gorriak, laranja... urdina gutxiago erabiltzen dut.

— Gehien saltzen diren koadroak?

— Nik ikusten dudana araberak, paisaiak saltzen dira gehien, hau da, leku konkreturik adierazten ez duten koadroak, edozein argazkitik ateratako margoak. Nik behintzat horiek saldu ditut gehien.

— Zenbat koadro jarriko dituzu erakusgai?

— Hamazazpi koadro eta 12 ontzi.

— Etxetik gertu jarriko duzu erakusketa, Mitarte Garai nekazal-etxean hain zuzen ere. Zergatik bertan?

— Ez dago arrazoi berezirik. Aretxabaletan, herrian jarri nahi nuen baina asteburuan ezinezkoa zen eta astegunetan jendea ez da erakusketak ikustera joaten, beraz, Mitarte Garaien jartzea erabaki nuen. Gainera niretako oso eroso da, etxetik gertu dago eta.

— Ze prezioetan saltzen dituzu zure koadroak?

— Koadroak 50.000 pta. inguruan eta ontziak 15.000 inguru.

— Denbora honetan guztian zenbat koadro margotu

duzu?

— Zaila da hori esatea baina 300 inguru esango nuke. Hori bai, batzuk oso txarrak!

— Zenbat denbora behar izaten duzu koadro bat margotzeko?

— Gustora hartu eta egunero margotuz gero, hiru bat aste. Dena dela, koadroa hasi eta ez bazait asko gustatzen, baliteke 3 hilabete ere ikutu barik edukitzea.

— Hemengo jendeak erakusketen bidez koadroak erosteko ohiturarik badu?

— Ikusi dudana araberak baiezkoa erantzungo nuke. Gertatzen dena zera da: jende konkretu baten koadroak saltzen direla. Dena dela, erakusketak dira oso ezagun ez garen margolariak ezagutzera emateko modurik onena.

Aurten akordeoi lehiaketan ediziorik arrakastatsuen espero da

A benduaren 2tik 8ra bitartean, Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzak antolatutako III. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa, XVI. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta VIII. Gipuzkoako Akordeoi jaialdia burutuko dira Arrasaten. Soinujole kopuruari begiratu, aurtengo edizioa arrakastatsuen dela esan behar da. 380 soinu-jole bilduko dira Arrasaten, ez gehiago ez gutxiago. Egun horietan Euskadiko eta Estatuko musikariek gain, munduko 19 soinu-jolerik onenak etorriko dira.

III. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan hemeretzi soinu-jolek hartuko dute parte, munduko onenek. Finlandia, Alemania, Jugoslavia, Euskal Herria, Errusia, Ukraina eta Txekoslovakiako soinu-joleak etorriko dira, horien artean, Aitor Furundarena eta Sergi Viotenko, iaz bigarren eta hirugarren postua lortu zutenak.

Lehiaketa honetako epaimahaia goi-mailakoa izango da: Precz (Polonia), Ranta-



nen (Finlandia), Lips (Errusia) eta Mornet (Frantzia), Jose Antonio Hontoria donostiarraren zuzendaritzapean.

Sariak ez dira makalak izango: 500.000 pta. eta Dragoia irabazlearentzat, 250.000 pta. bigarrenarentzat eta 100.000 pta. hirugarrenarentzat.

XVI. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan Euskal Herriko eta Estatuko soinu-jolerik onenek egingo dute topo. Ohiko hiru kategoriatan banatuko da: seniorrak, juniorrak

eta infantilak. Epaimahaiak 500.000 pta.ko saria banatuko du lehiakideen artean.

Gipuzkoako Akordeoi Jaialdiak berriz, Euskal Herriko eta Estatuko harrobiko gazteei soinua jotzen daukaten trebezia erakusteko aukera eskaintzen die. Jaialdi honetan ez dago saririk baina Arrasateko SUDC elkarteak opari berezi bat emango dio, urterro bezala, soinu-jole jatorrenari.

Aurtengo edizioa honek 7 milioiko aurrekontua dauka, Arrasateko Udala, Gipuzko-

ako Foru Aldundia, Kutxa eta Gipuzkoako Akordeoi Konfederakundearen laguntza antolatu da.

Egunak eta orduak

Emanaldi guztiak San Frantzisko Xabier eta Amaia Antzokian izango dira. Abenduaren 2 eta 3an Gipuzkoako Lehiaketako lehen fasea burutuko da SFXen, 2an goizeko 9.30etatik 1.30etara eta 3.30etatik 8etara eta 3an 9.30etatik 1.30etara. Abenduaren 4an eta 5ean Nazioarteko Lehiaketaren lehen fasea burutuko da Amaia Antzokian; 4an 3.30etatik 8.30etara eta 5ean 9.30etatik 1.30etara eta 3.30etatik 8.30etara. Abenduaren 6an eta 7an Nazioarteko eta Gipuzkoako Lehiaketetako 2. fasea eta Gipuzkoako Jaialdia egingo dira goizez eta arratsaldez ikastolan eta antzokian. Abenduaren 6an ere, harrera ofiziala egingo zaie soinu-joleei udaletxean. Azken gala eta sari banaketa abenduaren 8an Amaia Antzokian izango da.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

ARRASTRO

Birziklaia

Erabilitako objektuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONENEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

Gure ordutegia hurrengoa da:
Asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara.
Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88



i asteko iraupena izan zuen 1958ko bidaiak eta gurean denbora luzeagoan agertu da. Dena dela, bidaia denek izaten dute amaieraren bat eta honi ere iritsi zaio berea.

Bidaiaren asmoa, bidaia egiteko era, kanpinak etab. atera ditugu aurreko asteetan, eta gaurkoan gaiari agurra emateko, orduan bisitatutako hainbat


toki ikusiko ditugu: Lehen argazkian Coloniako Shutte lantegia ageri da, makina erreminta alorrean lan egiten zuena. Dantzari jantzitakoak ere ageri dira argazkietan, izan ere egun horretan egin zen Catedralaren aurreko emanaldia. Ondorengo argazkietan bidaiako helburu nagusiatariko bi: alde batetik Bruselako Atomium famatua eta,

bestetik Eiffel dorrea, aurrean hainbat espedizio-kide daudela. Azken argazkian Iparralde, Urrugne. Bertan, ohi denez euskaldunen artean, bazkari eder baten inguruan bildu ziren agurra egiteko: arrain zopa, haragia txanpinoiekin, oilaskoa, kafea, purua eta pattarra. Ez da ez, agurra egiteko modurik txarrena.

B

Z E R N A H I A G O ?

Andoni Zubillaga Amaia antzokiko langilea



- **Zer izan nahi zenuen umetan?** Rockeroa.
- **Amaia Antzokian lan egiteak badauka zerbait ona?** Jende asko ezagutzea.
- **Anekdotarik?** Duela gutxi "Maskarada" etorri zen "Ernesto izatearen garrantzia" antzeztera eta aktorea bat, bapatean, ahots barik geratu zen. Ospitalera takarran eraman behar izan nuen injekzio bat jartzera eta justu justu heldu ginen berari eszenatokira ateratzea tokatzen zitzaionean.
- **Noiz ikusi duzu jende gehien antzokian?** Estremaduraren emanaldietan, Ainhoa Artetaren kantaldian eta Institutuko desfileetan.
- **Hemen izaten diren emanaldi guztiak ikusten dituzu?** Bai, gehienak.
- **Seduzitzea ala seduzitua izatea?** Seduzitzea.
- **Nori emango zenioke muxu bat?** Edozein laguni.
- **Eta nori ostikada bat?** Bill Clinton eta bera moduko agintari guztiei.
- **Zenbat eserleku daude antzokian?** 828.
- **Onenak?** Erdialdeko edozein.
- **Inoiz autograforik eskatu duzu?** Bai, Benito Lertxundi hemen izan zen batean.
- **Zer egiten duzu ikuskizunek irauten duten bitartean?** Nire lana: Soinuari eta argiei adi adi egon edo pelikulak eskaini.
- **Gehien erabiltzen duzun piropoa?** Ez naiz piropozalea.
- **Musika talde bat?** The Clash edo Rolling Stones.
- **Dutxan kantatzen duzu?** Bai.
- **Inoiz lapurtu duzu zerbait?** Txikitan gozokiak eta edariak.
- **Zer edaten duzu tabernetan?** Garagardoa ala Coca Cola.
- **Ezkontzeko asmorik?** Pentsatzen nabil.
- **Zein izen jarriko zenieke zure seme-alabaei?** Peru eta Amaia.

LABURRAK

Biolontxelo emanaldia

Arrasate Musikalen esku-tik, biolontxelo emanaldia eskainiko da zapatuan Arrasate Musikaleko areto nagusian eguerdiko 12.30etan. Biolontxelo joleak Leire Bedia, Ane Aranbarri, Leire Zenigaonaindia, Oihana Lopez, Arturo Goikoetxea, Alzira Egidazu, Xabier Elkorobarrutia, Jose Luis Eriz eta Miren Zubeldia izango dira.

Aula Gazteko ikastaroak

Kutxako Aula Gazteak zenbait ikastaro antolatu du abendu eta urtarrilerako. "Ikasketa-Teknikak Euskaraz" ikastaroa abenduak 26, 28, urtarrilak 2, 4 eta 13an burutuko da; "Enplegu Teknikak Euskaraz" ikastaroa berriz apirilak 20 eta 27an eta "Komunikazio Teknikak Gaztekeraz" ikastaroa martxoak 2, 9, 16, 23 eta 30ean.

Ikastaroak larunbata goizetan eta opor egunetan izango dira. Informazio gehiago Kutxako edozein bulegotan edo GazteKutxako 426313 telefonoan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

• ESAERA •

“Hobe da akatsdun
diamantea akatsik
gabeko harria baino”


TXINATAR ESALDIA

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Animaliak ikertzen dituen zientzia. 8. Keramika Eskolako lehendakariaren izena. 9. (Ald.) Kilometroaren laburdua. 10. Beirazko ontzien multzoa. 12. Sexu maskulinoa duen animalia. 13. Buztan. 14. Adina. 16. Latinezko esaldietan erabailtzen da. 17. Arnas babeziaz hil. 18. Elkartu, bildu. 19. Zenbat landare haziren bildukina. 20. (Ald.) Alfabeto grekoko 13. letra.

Bertikalak 1. Zabalduta, irekirik. 2. Onera etorri edo ekarri. 3. Eguneroko jangai. 4. Nafarroako udalerrria. 5. Diosala, agurra. 6. Norbaiten itxurak egin. 7. Akatsak dituena. 11. Radioa. 15. (Ald.) Metalen pitzadura. 18. Burgosko ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Oreka bilatu beharko duzu ingurukoekin bakean bizi nahi baduzu.

Taurus Bakardadeak ez dizu kalterik egingo bolada batean.

Gemini Jateko marrubiak, edateko ura eta entzuteko tangoak.

Cancer Zoriontasuna ate joka duzu. Erne ibili eta aukerak aprobetxatu.

Leo Amodioarekin egingo duzu topo, zoragarria izango da.

Virgo Inguruan gaferen bat dauka. Uxatu zure ondotik.

Libra Zozketa guztietan parte hartzeko une egokia da.

Scorpio Arazoa lehenbailehen argitu, bestela gaiztotu egingo da eta.

Sagitarium Utzi hanburgesa zikin horiek eta barazkiak jaten hasi.

Capricorn Txoro-txoro zabilza azkenaldian. Jarrai bide horretatik.

Aquarius Saldu telebista edo oparitu. Bizitza erabat aldatuko zaizu.


Piscis Tamalez, zure zenbakia 033 da. Ezbeharrak gertatutako zaizkizu.

Etxe-Aundi

Torreauro, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu

TELEBISTAREN TXOKOA

Lierni Irizar seropositiboa Astebeten gonbidatu

Gaur gaueko Astebete saioan Maria Agirrek Lierni Irizar elkarrizketatuko du. Emakume hau seropositiboa da eta bere esperientzia kontatuko du ATBrako. Lierni "Harribeltza" Hiesaren aurkako komisioko partaidea da eta gaur Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta, gaixotasun honen inguruko hainbat gauza kontatuko du.

Elkarrizketaz gain, astean zehar jasotako albiste garrantzitsuenak gogora ekarriko dira ere gaurko saioan gaueko 9.30etan.



PROGRAMAZIOA



24 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Gonbidatua: Lierni

Irizar seropositiboa.

27 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

28 Asteartea

19.30etan

Marrazki bizidunak

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

29 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

30 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Dokumentala

1 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

KOMIKIA



Haritz. Ixe-ixa komiki taldea.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Hafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

"EDERTU"

ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa:79 04 28

SOLUZIOAK

Horizontalkak: 1. Zoologia, 8. Angel, 9. Mk, 10. Beierria, 12. Ar, 13. Isats, 14. Lain, 16. Ad, 17. Ito, 18. Batu, 19. Kuskua, 20. Un.
Bertikalak: 1. Zabalik, 2. Oneratu, 3. Ogi, 4. Lertin, 5. Oles, 6. Imitatu, 7. Akasdu, 11. Ra, 15. Ios, 18. Bu.
Jeroglifikoa: Pasata.

Etxebizitzak

- **Lokala alokatu nahi dugu.** Egoera txarrean badago guk konponduko dugu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Etxebizitza bat alokatuko nuke.** 50.000-60.000 pta. bitartean. Interesatuak dei egin 79 90 09 tfnora. Josema
- **Pisu baten gela bila nabil.** Tfnoa: 79 19 96. Ana.
- **Ferrerias kalean 200 m²ko lokal ederra** alokagai. Edozein gauzetarako baliozgarria. Ikusteko: 79 18 95.
- **Etxebizitza salgai** Loramendi kalean garaje eta guzti. Tfnoa: (91) 593 24 71. Fernando.
- **Makatzanen etxebizitza salgai.** Eguzkitsua, 3 logela, jantokia, sukaldea, ganbara eta igogailuz. Tfnoa: 79 56 98.
- **Etxebizitza salgai Roneon** (Garibai kalean). Tfnoa: 79 85 79. Dei egin guez.
- **Arexabaletako Solohaundi kalean** etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 46 25.
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko goizeko 8etatik 2etara. Tfnoa: 79 68 18. Idoia.
- **Filologia Klasikoan lizentziadunak**, latina, grekera morderno eta klasikoa emango lituzke. Tfnoa: 77 14 14. Dei egin 5etatik 7etara.
- **Neska prest etxeko lanak egin** eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 53 57. Maider.

- **Espertiadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Injinerutzako 1. mailako** fisikako klaseak hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.
- **Emakumea lan egiteko gertu.** Etxeko lanak edo umeak zaindu. Tfnoa: 79 74 92.
- **AEK-k EGArako irakaslea behar du.** Dei egin 77 03 69 tfnora.
- **Euskarazko 2. eta 3. urratseko klaseak** ematen dituzte 7etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 98.
- **Euskaraz, ingelesez, gaztelaraz** eta beste hizkuntzatan ipuin pertsonalatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Umeak zaindu** edo denda baten lan egingo nuke. Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.
- **Kanguro lana egingo nuke.** Gaeuz edo egunez eta nahi dituzun orduak. Tfnoa: 79 43 79. Leire.
- **UBI mailako matematikak eta fisika** irakatsiko dizkidan irakasle bila nabil. Euskaraz hobeto. Tfnoa: 79 96 05.
- **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 92 86. Ainhoa.
- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Etxean, dendan...** edozein lanetarako gertu. Tfnoa: 79 76 45.
- **Lurra barnizatu** (barniz ekologikoarekin) eta parketa jartzen dut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Tfnoa: 71 50 72.
- **Neska prest umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Latinezko klaseak josoko nituzke.** Tfnoa: 79 94 92. Dei egin arratsaldeko 7etatik aurrera. Pilar.

Salerosketak

- **Oso egoera onean dagoen Seat 127a salgai.** SS-K. Oso prezio onean!. Tfnoa: 79 97 23.
- **Yamaha MT 8 X magnetofonoa salgai.** 8 pista. Berria. Tfnoa: (945) 27 44 26.
- **Liburuendako koloretako** metalezko apalak salgai. Tfnoa: 77 07 82. Marije.
- **Paolo Soprani akordeoia salgai.** 96 baxu, oso egoera onean eta oso merke. Tfnoa: 79 40 51.
- **Bisoizko berokia salgai.** Estrenatu gabea. Tfnoa: 79 45 86. Montse.
- **Turbo Keroseno berogailua salgai.** Bi bonbonaduna. Berri berria dago. Tfnoa: 79 03 67.
- **Zibro Kamin Turbo** kerosenozko berogailua salgai. 40.000 pta. Tfnoa: 77 04 61.
- **R-11 Diesel salgai.** SS-X matrikuladuna. Eskaintza ona. Tfnoa: 71 45 07. Santi. Gaeuz deitu.
- **Motorrean ibiltzeko txamarra ia berria salgai.** Gorria, txuria eta beltza. 50 taila. Prezioa: 25.000 pta. Tfnoa: 79 22 19.

Denetarik

- **Arrabala dendan betaurreko graduatu batzuk agertu dira.** Zureak badira dendan bertan ditugu. Tfnoa: 79 23 40.
- **Mintza praktika egiteko** jatorrizko ingeles baten bila nabil. Tfnoa: 79 26 28.
- **Azaroaren 8an Arrasate Eskoritzara** motorrean nindoala giltzak galdu nituen. Aurkitu badi-tuzu dei egin 79 75 80 tfnora.
- **Egunero Gasteiza joaten naiz** goizeko 8etan autoz Lekua dut, beraz, etorri nahi baduzu eramateko prest nago. Tfnoa: 77 02 74.

Aste Gazte

Lana

- "Instituto Nacional de Empleo" (INEM), 1.900 administrari laguntzaile lanpostu kaleratu ditu, hauetatik 64 Euskal Komunitate Autonomorako. Titulazioa: Eskola Graduata. Epea: abenduak 7.
- **Elgoibarko Udalak**, administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko deia egin du. Baldintzak: Eskola Graduata eta 3. hizkuntza eskakizuna. Epea: abenduak 11.
- **Markina-Xemeingo Udalak**, administrari laguntzaile lan-

postu baten deialdia egin du. Baldintzak: Eskola Graduata eta 3. hizkuntza eskakizuna. Epea: abenduak 11.

Ikastaroak

- **Gazteei zuzenduta**, "Txontxongilo tailerra" Bergarako TAUN-TAUN kolektiboaren eskutik. Abenduaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean, arratsaldeko 5etatik 7etara, IMI zegoen lokal-tan. Matrikula: 5.000 Pta. (klaseak eta materiala barne), 3.500 Pta. ikasle eta langabetuentzat. Plaza mugatuak.

• **Hastapeneko "Makilaia** eta antzerkirako karakterizazio tailerra" Arrasaten. 60 orduko iraupena. Jorratuko diren gaiak: materialak, zuzenketak, argi ilunak, efektu bereziak... Informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Eski Kanpaina

- **Diputazioak** aurrean ez du eski kanpainarik antolatuko behar. Deba Garaiko I. Olinpiada
- **Abenduaren 26tik 29ra.** Kirolak: Aretu Futbola, Saskibaloia, Eskubaloia, Igeriketa eta Pala. Partehartzaileak: 16 urtetik gorako neska-mutuez osatutako kuadrila, elkarte, klub, e.a. Izenematea: 3.000 Pta. eta abenduaren 5a baino lehen egin behar da.

"Gaztetasuna erlijio bat da, eta pertsonak beti bereganatzen du erlijio hori"

ANDRÉ MALRAUX.
IDAZLE ETA POLITIKARI
FRANTZIARRA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



PARDO

ESTETIKA ZENTRUA

**DE-5.000 MAKINA,
DEPILAZIO
ELEKTRIKOAN
AZKENA!**

Amaitu dira depilatzerakoan pasatzen zenituen une larriak!
Ohiko metodoak:

- Termokoagulazioa
- Elektrolisia
- Blend A
- Blend B

ETA ORAIN:

• Flash: DE-5.000k segundo baten ehunekoan karga elektriko bizia sortzen du eta orratzak erabiliz, **minik gabeko** depilazio hobe ezina lortzen da.

• Sonda (Termoterapia): elektrodo batek sortzen duen beroa erabiliz azalak alde zurratik emandako gel berezi bat surgatzen du eta azkenik argizaria erabiltzen da depilazio egokia lortuz.



Iparragirre
enparantza, 4 behea.
Grupo San Juan
Tfnoa: 79 52 17
Arrasate

Gabonetako ospakizunei aurrea hartzera gatoz: bihar, abenduak 2, zazpi urte beteko ditugu eta abenduaren 15ean 300. alea kaleratuko dugu. Egun horretan aldizkaria nola egiten den ikusi ahal izango duzue, ateak zabalik edukiko ditugu eta. Animatu eta lasai etorri!


3000

Arrasate

IPRESS



Maalako Errabala, 13
Tfnoa: 79 92 76
ARRASATE



OKENDO
KIROLAK